

1998ko
Urriak 16
424. zenb.

Baroja Mondragoen

“Zerbaitek ustel usaina zuen herrian;
baina ez zen berezko ustel usaina,
baizik eta kiratsa intsentsuaren
eta arroz hautsen usainarekin nahasirik”.

(Pio Baroja, *El Cura de Monleón*, 1936)

IKUSPEGIA: MIKEL IRIZAR • KULTURA: MUGARRIZ MUGARRI
EUREN IKUSPUNTUTIK: NEKANE SAN MIGEL • KIROLAK: SAIOAKO KARATEKAK

ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK

LOGELATAN espezializatutako zentrua

48 urteko esperientzia duten profesionalak sortu eta zuzendutakoa



Eta orain
2. solairua
**Saloi eta sofa
erakusketa**

LARUNBAT ARRATSALDEETAN ZABALIK!

Araba Etorbidea, 5 • Eskatu Pabilioia • ARRASATE • Tel./Faxa: 943 79 41 82

Bakearen alde
enpleguaren alde,
... EUSKADIREN ALDE



**EZKERRAREN
ORDUA**

Elkartasunaren botoa

ezker batua

Boto eske

Badakit hauteskunde sasoiari Arrasate Pressi neutro izatea tokatzen zaiola, eta hemen idazten dugunok ezin dugula gehiegi erakutsi gure bihotz politikoaren kolorea. Eta hala ere, gaurkoan boto eske nator. Lizarrako akordioa sinatu duten alderdietan, hain zuzen ere. ETaren su etenak egunkari eta irrati-telebistak bete ditu, eta hau ez da harrizkoa. Gatazkaren adierazpen bortitzak beti dira nabarmenagoak, eta berdin haien etena. Gatazka bere adierazpen bortitzetara mugatzen bada, berriz, arazoak sinpleago ematen du eta jarrerak hartzea errazago bihurtzen da. Niretzat, ordea, Lizarrako akordioa izan da albiste nagusia, hor bai-



Mikel Irizar

“Lizarrako akordioak ez du independentzia aldarrikatzen, erabakitze gaitasuna baizik”

tago konponbidearen gako. Ez bakarrik jarrerak hurbiltzeko egin den ahalegina izugarria izan delako, hori asko bada ere. Ez soilik ETaren onspena lortu eta lehenengoz su eten orokorra eta mugagabea ekarri duelako, hori ere sekulako lorpena izanik. Lizarrakoaren garrantzia bere edukian datza. Euskal Herriaren burujabetasuna aldarrikatzen dutenek bete-betean asmatu dute oraingoan. Testua teknikoki oso ona da, ez du akatsik, edozein demokratik onartzeko modukoa da. Ez du independentzia aldarrikatzen, erabakitze gaitasuna baizik, denboraren joanean ondorio desberdinak eman ditzakeen aukera errespetatzea eskatzen du. Irlandakoa konponbidean jarri duen botika bera, bestalde.

Lizarrakoa zenbateraino

den ona beste aldekoen despisteak erakusten du. Duela apenas hiru hilabete, euskaldunok itsasora botatzeko gai sentitzen ziren Mayor Orejaren eskutik. Orain, berriz, ez dakite nola jokatu. Lehen kolpean esentzietara jotzea —“Espainia eta Konstituzioa ukiezinak dira”— uler daiteke, baina hori lehengo da, horrek ez du ezer konponduko. Hurrengo pausoa akaso eztabaida serioago hasiko da, alegia, euskaldunok herri bat garen ala espainol herriaren zatia besterik ez, non dagoen subiranotasuna eta nor den erabakitze gaitasuna. Hor aurkitu beharko da topagunea. Denbora behar dute okerreko bidean atzera egin eta zuzena hartzeko.

Gerry Adamsek ere pazientzia izatea aholkatu digu euskaldunoi. Bidea luzea izango da, eta ez du gorabeherarik faltako. Baina nahasi dabilten ilusioa eta beldurraren artean, ilusioa indartu beharra dago, mugitzen hasi dena bultzatu. Nola? Ondo ari denari lagunduz. Datorren 25ean Lizarrako alderdietan gustukoena aukeratu eta emaitza zure botoa. ■

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK
ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otarola kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 77 05 65. Faxa: 943 77 09 40
E-mail: arrasatepress@readysoft.es
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Manjoo Deogracias, Ubane Madera, Maider Osa. **Publizitateak:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo, Arantza Lagunilla. (Tel.: 943 77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gáinzarain (Tel.: 943 79 02 26) **Diseinua:** Txos Azumendi. **Asteburuetako berriemakileak:** Lierni Urbarren. **Bekadunak:** Gontzal Landa. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Itxaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurrela, Juan Luis Azkarate, Aitor Orrengoia, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Besaide M. E., Karmelo Urbarren, Bixente Pagoga, Amaia Jauregi-Arraburu, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopl, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maitte Barrera. **Banaketa arduraduna:** Jaxone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.900. **Lege-ordainak:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: “Baroja gurea” liburuk atarala.

Arrasateko Udaleren laguntza
 Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza
 Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileraren laguntza

80

milioi pta gastatuko ditu Udalak Musika etxean

Arrasateko Udalak 80 milioi pta gastatuko ditu Cerrajerako eraikin printzipala egokitzten, tokia egiteko Arrasate Musikali eta Goikobalu abesbatzari. Arrasate Musikalek utzi egin beharko du *Apren-dices* eskola.

ITURRI ONETIK

Eskualde ospitala legez kanpo

Badira zazpi bat hilabete Eskualde Ospitalaren alderdi berria inauguratu eta ireki zenetik. Harrezkero, jo eta ke dabil lanean. Eskualde Ospitalak, berriz, oraindik ez du Arrasateko Udalaren okupazio baimenik.

Horrek esan nahi du Osakidetza legez kanpo ari dela ospitalaren alderdi berria erabiltzen eta Arrasateko Udalak utzi egiten diola hori erabiltzen, nahiz eta legeak eskatzen dituen baldintza guztiak ez bete. Egoera horretan istripuren bat gertatuko balitz ospital berrian eta kalteuek auzitara eramango balute Arrasateko Udala, honek arazo larriak izango lituzke epaitegietan, baimenik gabeko jarduerak baimentzeagatik.

“Zer egin behar dut nik Eusko Jaurlaritzak amandako legeak esaten badu hirigune historikoetan egurra dagoen lekuan egurra ipini behar dela, beste alde batera begiratu? Ez”.

Tito Perkaz

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Osteguna, 16**
• Gaeuz: Korkuera, Musakola
- Ostirala, 17**
• Gaeuz: Irizar, Erguin
- Larunbata, 18**
• Gaeuz: Amezua, Santa Marina
- Igandea, 19**
• Gaeuz: Zabala, Zarugalde
- Astelehena, 20**
• Gaeuz: Ruiz, Maala
- Asteartea, 21**
• Gaeuz: Morales, San Andres
- Asteazkena, 22**
• Gaeuz: Azkoaga, Ferrerías

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 79 53 00
Igualetoaria 943 79 05 00
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

Gurutze Gorria
Bergara 943 76 55 76

DYA
Antzuola 943 78 71 57

Anbulatorioak
Arrasate (Larrialdiak) 943 79 13 57
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 77 03 46
• Espezialitateak 943 77 05 78
943 77 12 64
Oñati 943 78 08 52
Eskoriatza 943 79 98 58
Arexabaleta 943 79 74 58
Aramaio (945) 943 45 51 16

Anbulantziak
Gipuzkoako ambulantiak 943 45 87 44

Udaltzaingoa
Oñati 943 78 04 11
Bergara 943 76 14 69
Arrasate 943 79 14 39
Arexabaleta 943 79 10 52
Eskoriatza 088

Ertzaintza
Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak
Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44
943 79 76 78

Garraioak
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentruak
Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
KIUB-OMIC 943 79 51 55

Monterron liburutegia
Monterron 943 77 01 05

Irratia
Arrasate Irratia 943 79 58 77

ZUTIK-EKOOK EH-EN ALDE. ZERGATIAK.

Hemen gaudenen artean diferentziak egonik ere, helburuetan bat gatozela-lakoan gaude.

Antzeko sentimenduek bultzatzen gaituzte zapalduen eta esplotatuen alde borrokatzeko orduan.

Antzeko sentimenduak ditugu gure bihotzean herri honi diogun maitasunari buruz.

Pozgarria iruditzen zaigu Lizarran adostu genuen adierazpena, non oso argi esaten den: gatazkaren amaiera elkar-riketa eta akordioaren bide-tik etorri behar dela, azken hitza euskal herritarren eskue-tan utziz.

Euskal herritarrok eraba-

ki dezagula autodetermina-zioaren bidez estatuekiko zer harreman mota nahi dugun, independenteak izan nahi dugun edo ez.

Bide horretan gure uste-tan eraiki behar dugun Eus-kal Herriak ikuspuntu ezker-tiarretan oinarritua izan behar duela argi dugu.

Adibide batzuk:

- Arrasate kooperatiben sorlekua izanik, beharrezkoa iruditzen zaigu kooperatibis-moa enpresa planteamendu hutsetik gizarte arlora hur-biltzea.

- Gizon eta emakumeen berdintasunaren aldeko borro-ka lege eta ekintzetan bul-tzatzea.

- Gutxiengo politiko, etni-ko, sexual eta abarreko errespetua zabaldu eta sen-

dotzea.

- Enplegua finkatzea eta langabezian daudenen edo kontrato ebentualak dituzten pertsonen artean elkartasun lotura iraunkorra sortzea. Lan ordu estrak eta orain hain boladan jarri diren lan ordu malguak kentzea.

- Herri garatuen bizi maila altua ahalbidetu duten hego-aldeko herri pobreekiko elkar-tasuna bultzatzea.

- Ingurugiroan Arrasatek dituen arazo larriei aurre egin nahi diegu. Besteak beste: azpiegituren txikizioa, harro-biak...

Helburu hauek hala iza-nik, gure asmoa "ezker mutu-rretik" gabilztanontzat dato-zen hauteskundeetan EH garaile ateratzea da.

Arrasateko Zutik

Okerrak zuzentzen

Joan den asteko alean gaiz-ki jarri genuen, gure hutse-giteagatik, Landaluze den-dak saltzen duen Danone Bio jogurtaren prezioa. 366 pta.tan barik, 266 pta.tan saldu zuen.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

M MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

Drogak legeztatzeak lagunduko luke arazoa konpontzen?

The Economist aldizkariak eta beste hainbat erakundek drogen legeztatzea eskatu dute



Francisco Jabier Saiz
(24 urte)
Langilea

Arazo gehiago izango lirajteke. Nahiz eta zaindutako leku batean saldu, okerrago edo berdin izango litzake.



Juan Maria Mancebo
(19 urte)
Langabea

Leku batzuetan legeztatuz gero, ez lukete kontsumituko, baina ez litzateke berdin izango kasu guztietan.



Joaquin Ferreira
(27 urte)
Dendaria

Konponbidea norberaren eskuetan dago. Hala ere, ez litzateke konpobidea izango drogak legeztatzea.



Arantxa Landaluze
(44 urte)
Erizaina

Alkohola ere droga da eta badakigu zer pasatzen den. Legeztatzekotan, erakutsi egin beharko litzateke nola erabili.



Mari Karmen Arrizabalaga
(39 urte)
Etxekoandrea

Alkohola ere legezkoa da, baina hemen asko edaten da. Ez dakit hobea litzatekeen.



Silvia Mendizabal
(32 urte)
Umezaina

Ez dakit. Nik uste baietz, baina horrela esatea erraza da.



Patxi Zubiaurre
(50 urte)
Argiketaria

Ez dakit, baina akaso ez litzateke onena izango.



Ana Rosa Mondragon
(48 urte)
Etxekoandrea

Agian konponduko litzateke, baina ez dakit. Hala ere, posible dela uste dut.



AGUSTIN

Automobilaren karburazioa eta elektronika





Uribarri Etorbidea, 16 • ARRASATE • Tel.: 943 79 73 58

ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

Zu ondo egotea nahi dugu

- Oinetako erosoak
- Lanerako eskalapoiak edo zuekoak
- Neurrira egindako plantilla bereziak

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34

16

ostirala

■ ZINEA

En la Puta Calle, Alai zineman, 19:00etan eta 22:00etan..

■ ESKERRONEKO KONTZERTUA

Goikobalu abesbantzak emanaldi bat eskainiko du Amaia Antzokian, arratsaldeko 20:30etan. Kontzertua "Argentina-98" proiektua aurrera eramaten parte hartu zuten guztiei eskerrak emateko antolatuta da.

17

larunbata

■ ZINEA

Los Amantes del Circulo Polar, Alai zineman, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ KANPALDIA DEGURIXAN

Elgeako Zentral Eolikoaren aurkako kanpaldia egingo da arratsaldeko 17:00etatik aurrera. Degurixara abiatzeko, 15:00etan bilduko dira Arrasateko Portaloian.

18

igandea

■ ZINEA

Los Amantes del Circulo Polar, Alai zineman, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ PERRETIXIKO LEHIAKETA

San Viator ikastolak VIII. Perretxiko Lehiaketa antolatu du. Sebero Altuben bilduko dituzte perretxikoak eta 10-16 urte bitarteko edozein ikasle taldek har dezake parte. Perretxiko aurkezpena lehiaketa egunean goizeko 11:00etan hasi eta 14:00etan amaituko da. Perretxikoekin batera Jabiloren lagunek taberna jarriko dute.

■ ELGEARA IBILALDIA

09:00etan Urkulun, Araotzen, Eskoriatzan eta Barrundiako plazatik aterako dira Elgeara antolatu dituzten mendibilaldiak. 12:00etan elkartzea espero dute Amuategiko tontorrean. Hantxe salda, hitzaldiak eta bestelakoak izango dira.

■ AITOR ARANAREN ALDE

Orixol Mendi Elkarateak Aitor Aranaren omenezko I. Mendi ibilaldia antolatu du. Aramaio-Teilamendi-Zabalandi-Lezia-Orixol-Marixekaka-Jarindo-Kurtzeta-Aramaio izango da ibilaldiaren nondik norakoa. 07:30etan aterako dira Aramaioko plazatik.

■ ARABAKO MENDIETARA

Besaide Mendizale Elkarateak, Lagun-Cruz del Castillo-Biasteri mendi irteera antolatu du. Irteera goizeko 07:00etan izango da, Garibai kaletik.

19

astelehena

■ ZINEA

Los Amantes del Circulo Polar, Alai zineman, 19:00etan eta 21:30etan.

■ ELIKAGAIK MINTZAGAI

Nutrizioa eta osasunari buruzko hitzaldia eskainiko du Bittor Rodriguez dietista eta elikagaien teknologoak, Bergarako kultura etxean, 19:00etan.

20

asteartea

■ ZINEA

Los Amantes del Circulo Polar, Alai zineman, 19:00etan eta 21:30etan.

■ HITZALDIA ALMENEN

"Heziketa eta elikadura" izango du hizpide Esther Telleriak Almenen eskainiko duen hitzaldian. Saioa arratsaldeko 18:00etan izango da eta aurre eskolakoei eta lehen zikloei zuzendua da.

■ ELIKAGAIK MINTZAGAI

Nutrizioa eta osasuna izango ditu mintzagai Bittor Rodriguez dietista eta elikagaien teknologoak, Bergarako kultura etxean, 19:00etan.

■ BIDAIA BARDEETARA

Gazte Ekintzak antolatuta, urriaren 24an eta 25ean irteera egingo da Bardeetara. Izena emateko epea urriaren 21ean eta 22an bukatuko da, 19:30etatik 20:30etara. Prezioa, 4.000 pta, janaria barne. Irteera Garibaiko geralekuan, 07:00etan.

22

osteguna

■ HITZALDIA ALMENEN

“Heziketa eta elikadura” izango du hizpide Esther Telleriak Almenen eskainiko duen hitzaldian. Saioa arratsaldeko 18:00etan izango da. Bigarren ziklokoko eta batxir-legokoei begira antolatu da.

■ EGINGO DUGU

Euskal Komunikabideen Hedapenerako Elkartek bulegoa irekiko du Arrasateko Arrano Elkartean, egunkari berriaren aldeko diru bilketa errazteko. Egingo Dugu plataforma arduratuko da diru bilketaz. Arrasaten 23 milioi pta biltzea espero du plataformak. Hori dela eta, astelehen eta ostegunetan 18:00etatik 19:00etara, informazio zerbitzua irekiko da. Bulegoa urrian eta azaroan zehar egongo da zabalik.

■ “SERRAJERIA”

ARGAZKIETAN

Jon Ruiz de Zarate argazkilari mondragoetarrek, “Serrajería” izena duen argazki erakusketa ireki du

Harresi Aretoan. Argazkiok Union Cerrajera dute gai nagusi eta hilabete honetan izango dira ikusgai. Ordutegia, 18:00etatik 20:00etara lanegunetan eta 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara igande eta jaiegunetan.

■ IKASTAROAK NONAHI

Familia eta Gizarte Zentruak zeramika ikastaroa antolatu du, “Raku” izeneko teknika lantzeko. Ikastaroa astelehenetan izango da 16:00etatik 18:00etara. Bestelako ikastarorik ere antolatu dute. “Besteren menpe dagoen adinekoa” izena duena adibidez, pertsona helduak zaintzen dituztenei zuzendua. Saioak astelehenetan eta

asteazkenetan izango dira, 18:00etatik 20:00etara.

Horrez gain, “Oihalak apainketan” ikastaroa ere antolatu dute. Ohe estalki, errezel, kuxinak eta bestelakoak egiten irakasteko helburuarekin. Saioak ostegunero 18:30etatik 20:30etara izango dira.

■ ESKULTURAK HOTELEAN

Jabier Mercader eskulturgileak ere, bere lanak ditu ikusgai Arrasaten. Gasteiztar honek Mondragon Hotela hautatu du erakustokitzat eta hantxe bildu ditu “Ikonoak” izeneko bilduma. Lanak 09:00etatik 12:00etara eta 16:30etatik 19:30etara ikusi ahal izango dira.

Zaldibar aurrera

Bonba Taldiek Zaldibarko Futbito Txapelketa antolatuko du. Horrela erabaki zuten joan den astean egindako batzar orokorrean. Dagoeneko parte hartu nahi duten guztiei deia egin diete urriaren 19an, astelehena, Monterronen egingo duten bilera ager daitezen. Bonba Taldieko kideak arratsaldeko 19:00etatik 20:00etara izango dira Monterongo Hitzaldi aretoan. Txapelketan izena emateko Monterronera joan behar ko dira taldeak asteazkenean, urriak 21, eta ostegunetan, urriak 22, 18:00etatik 20:00etara. Izen ematea taldeko 20.000 pta. kostako da. Diru ezarpena, berriz, 8.000 pta.koa izango da.


Antolatzaileek adierazi digutenez, udaletxera jotzekotan dira diru laguntza bila. Euren iritziz “ia 1.000 lagun biltzen

dituen txapelketa batek udalaren diru laguntzak izan behar ko lituzke”.

Baina Bonba Taldiek ez du jokalaria mondragoetarren lagunartea alboratu Zaldibarko txapelketa dela eta. Jadanik hasiak dira derbirako bidaia prestatzen, baina aurrez bazkide kuota eguneratzea eskatu nahi diete bazkide guztiei. Horretarako epea urriaren amaieran amaituko da.

Honekin batera, Egingo Dugu plataforma egiten ari den diru bilketarekin bat egin dute Bonba Taldekoek eta 100.000 pta.ko akzio bat erosi dutela jakin arazi nahi diete bazkide guztiei.

Honez gain, Jabi Mayorren aldeko zerbait egiteko ideiak ematea ere eskatu diete taldeko kide guztiei.



USTEAK USTE

Ez beldurtu

“Lizarrakoek irabazten badute, hauteskunde hauek bukatutakoan maletak egin eta zuen jatorrizko herrietara itzuli beharko zarete”, Extremadurako lehendakariak Barakaldon. “Hemen inork ez du maletarik egin beharko hauteskunde ondoen”, Aznarrek Donostian. Horiek entzun, ikusi eta irakurri ostean, batek esaten dio bere buruari: baina nork arraio aipatu du etorkinak beren herrietara itzularaztea?

Lizarrako Ituna sinatu zutenek ez, behintzat. Baina estrategia oso garbi dago. Felipe, Aznar, PSOEko baroiak, horiek guztiak eta beste asko Euskadira etorriko dira beldurra eragitera erdal jatorriko jendearen artean, botoa ematera joan daitezten, Lizarrakoek defendatzen dutenen kontra.

Arrasaten jende asko dago kanpotik etorria. Kanpainak dirauen bitartean, sekulako bonbardaketa izango dute komunikabide espainiarren aldetik ere, Espainiaren batasun sakratua defenda dezaten. Egin dezatela nahi dutena, baina beldurrik barik.

Joxe Aranzabal



Borondate onez?

Nekane San Migel *

Dagoeneko irakurle guztiok jakingo duzuenek, urriaren lehen egunetan “Jueces para la Democracia” elkartearen urteko bilkuran, interes gehien sortu zuen txostena, estatu eleanitz batean epaileon betebeharrak aztertu nahian aurkeztu genuena izan zen. Gauza jakina da, oso boto gutxiengatik izan bazen ere, galtzaile atera ginela hizkuntza bi ditugun erkidegoetan epaileak biak jakiteko obligazioa arautzearen aldeko proposamena egiten genuenok.

Horren ondoan, denok entzun ditugu Justizia Saileko arduradunak esandakoak, eta batek baino gehiagok azaldu dit ez duela ezer ulertzen, kontrajarriak diruditen postura hauen aurrean.

Toledon txostena eztabaidatzen ari ginela, hara zer azaldu zuen hilabete gutxi dela Bilbora bere borondatez etorri den epaile batek: egunero, goizeko 08:00etatik 10:00etara bere borondatez euskara

ikasteko eskoletara joaten dela, baina inork ez dezala horretara behartu, orduan utzi egiten duela eta... Hori entzundakoan pentsatu nuen egokiena jaiki eta oinak musukatzea ote zen, hain eskuzabala azaltzen baitzen... Inork behartu gabe, mesede hori egiten baitzigu euskaldun lelooi, eta noski, bozketa orduan obligazioa ezartzearen kontra eman zuen botoa. Baina zer bozkatu zen han?

Estatu guztiko epailez osaturiko talde batek urtean zehar mamitu genuen lantxo bat. Zenbatak ezagutzen duten euskara, katalana, galegoa; zenbat, non eta nola erabiltzen diren; Mendebaldeko beste estatu batzuek nola bideratu duten arazo hau (Belgika, Kanada, Suitza, Italia...), hauen esperientzietatik ideiak jaso nahian. Azkenean, bederatzita puntuz osaturiko ondorioak bozkatu genituen, banan-banan: aurreneko hirurak Konstituzioaren hogeita urte pasa eta gero, dagoen hutsunea eta ofizialkidetasuna dugun autonomietan dagoen mentsa egiaztatzen zutenek,

gehiengo zabal batez onartu ziren, baina... baina laugarrenetik aurrera, eskubide horien txanponaren beste aurpegia azaltzen zen, epaileon betebeharrak nola arautu, lege aldaketan bidez, noski... Eta hori ez, jauna, pentsatu ere ez. Aldarrikapen moduan, bale, baina Ni ikutu gabe.

Jakina da, halaber, 1997ko abenduan Justizia Sailak antolatutako jardunaldietako ondorioetariko bat ere “gai” honen inguruan dagoen giroa leundu nahian, batzorde bat sortzea izan zela, eta gure proposamenetariko bat hauxe izan dela: erraztasunak jarri euskara ikasteko bidean ezarri nahi duten epaileei, eta horren ondorioz, bali-teke laster guztiok euskara jakin edo ulertzea, sailburuak dioenez. Baina ez dago inongo araurik euskaldunok epaiketa euskaraz egiteko eskubidea berraztertzen duenik. Jakiteaz gain, erabiltzeko borondatea behar da. Hor daude duela bi urtez geroztik epaitegietako makina bat eredu euskaratuta. Ikusi dituzte?

Baina ez larritu. Epaile aurrerakoi batek baino gehiagok dioen bezala, euskaldunok abarkatan geratu omen gara. Ez da, bada, itzulpena nazioarteko erakunde ospetsu guztietan erabiltzen? Zer egiten dugu geure herrian geure hizkuntzan ulertuko gaituztenen eske?

* Epailea

“Euskara jakiteaz gain, epaileek erabiltzeko borondatea behar dute”

• Txitxinpe •
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE • Tel.: 943 - 79 67 76

Ψ
NARE
psikologoak
Haurrak - helduak - bikoteak
RPS. 292/98
Isasi, 17 - 1 • EIBAR •
Tel.: 943 20 05 95

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

Herri Aurrerakoia Guztiontzat

Euskal hiritarroi geure etorkizuna erabakitzeke aukera emango digun esparru politikoa dugu helburu. **Elkarrizketaren** bidez iritxiko den bakea eta adiskidetzeari lortu behar ditugu.

Langabeziari aurre egingo dion lan banaketa duina da gure xedea. **Euskararen** benetako indarberritzea da gure helmuga.

Euskal eredu sozialdemokrata da gure jomuga.

Alkartasuna eta bizitzeko egokitasun handiagoa izango dituen herria eraiki nahi dugu.

Berezko hezkuntz sistema integratzaile eta kalitatezkoa gauzatu behar da.

Ekonomi-esparru lehiakor eta berriztatzailea eskuratu behar dugu.

Orain duzu aukera,

**EMAN
BOTOA**



**eusko
alkartasuna**



Udazken honetan

“la caixa”ko edozein
Txartelarekin
Zinea
-100 pta.



**Zatoz
Gasteizko
zinemetara,
sarrerak
Arrasateko
La Caixan
bertan
erosita!!**

**Hatz bakar batekin,
zeuk erabaki.**

**Aurkeztu 100 pta. Zine sarrera
bakoitzeko, ServiCaixan erosita
“la Caixa”ko edozein txartelarekin
(Visa, Caixa abiarta, Donostia
Kultura, Tarjeta Monedero)**

Urriaren 31 arte ballo du

Sarreraren salmenta 24 orduetan zehar



ServiCaixa
“la Caixa”

**Garibai Etorbidea, z/g
ARRASATE
www.lacaixa.es/servicaixa**

BIZKAIA

Leioa

ARTEA ZINEMAK

Basauri

BILBONDO ZINEMAK

Barakaldo

Max Center Zinema



GASTEIZ

GURIDI ZINEMAK

SAMANIEGO ZINEMAK



DONOSTIA

**Warner
Lusomundo**



astea bi hitzetan

■ **Urkulu eta Aixola lotuko dituzte**

Gipuzkoako Foru Aldundi-ko Lan Hidrauliko eta Hiri-gintza Departamentuak aurkeztutako egitasmo baten arabera, lotu egingo dira Aretxabaletako Urkulu eta Eibarko Aixola urtegiak. Neurri honekin, saihestu nahi dira lehorte garaian izaten diren ur mozketak. Izan ere, Foru Aldundiak eginiko azterketak erakusten duenez, Urkuluko urtegiaren egoera ona den arren, Eibarko Aixola urtegiak ez luke ur nahiko edukiko sikutea gertatuz gero. Lan hau egiteko, 805 milioi pezeta-tako inbertsioa egin behar-ko da.

■ **Kontzezinoko zubia bota zuten**

“Puente de la Rana” izenaz ezagutzen genuen Kontzezinoko zubia dagoeneko argazkitan bakarrik ikusi

ahal izango dugu. Izan ere, zubi honen estatusunak arriskutsu bihurtzen zuen erre-karen urak hazten zirenean. Ondorioz, udalak botatzeko eskatu zion Eusko Jaurlaritzari eta hala egin zuten. Gerora, Cerrajerako urbanizazio lanekin batera, Etxaluzer baserriatik Cerrajerako eraikuntzara bitartean dagoen erreka zati hori txukuntzeko asmoa dago, erreka bazterrak batez ere. Kontzezinoko zubia botatzeko lanak, “Construcciones TER” enpresa bergararrak egin ditu.

■ **Ehiza postuak**

Arrasateko ehiztariek horrela eskatuta, ehiza postuak gehitu egingo dira Kurtzetxikin. Hemendik aurrera hamabost ehiza postu egongo dira. Leintze Ehiza eta Arrantzu elkarteak aste honetan zozkatuko ditu bai postu berri hauek zein

Bedoña eta Larrinoko postu zaharrak ere. Zozketa hauek astero errepikatuko dira. Zozketan ateratako izendapenak egun bakar-rerako soilik balioko du. Zozketan parte hartzeko 100 pezeta ordaindu behar-ko dituzte Leintzeko kide-ek. Bestelakoek, berriz, 200 pezeta.

■ **SOS Arrazakeria-Caritas**

Arrasateko SOS Arrazakeria eta Caritas alokatzeko bi etxebizitzaren bila dabil-tza, Zaldispen bizi diren bi familia portugaldarrentzat. Izan ere, SOS Arrazakeriak bide honi ekitea erabaki du, epaileak herriko alkatearen aurka ezarritako auzia amaitutzat eman ostean. Bi etxebizitza hauek lortuz gero, eskubide oro dituzten herri-tar bezala, erroldan sartze-ko aukera izango lukete bi familia hauek.

■ **SINDIKATU BERRIA**

Ezker Sindikalak eta ESK-CUIS sindikatuak batu egin dira Ezker Sindikatuaren Konbergentzia (ESK) sindikatu eratu. Asteburuan Portugaleten sortze biltzarra egingo dute. Herrialde bakoitzeko bi pertsonak osatuko dute sindikatuaren Koordinadora Nazionala. Gipuzkoan, Juan Ramon Garai arrasatearra aukeratu zuten Deba Garaiko ordezkari.



“Pilota partida bat jokatzen ari zela Elgetako pilotalekuan, (Luis Usatorre Ulgor kooperatibako sortzailetarikoaren) bihotzak zartada zorrotza izan zuen, baina, behin berriro, izkutatu egin zuen, lagunak ez izutzeko. Automobilaren aurrealdean kuzkuriturik, izerditan eta mutu, Arrasatera bidean jarri zen. Hogei kilometro. Bere lagunak, Jose Maria Gallastegi eta Leandro Azkoaga, ez ziren mezuaren larritasunaz konturatu. Bergaran gelditu ziren, ezer gertatu ez balitz bezala, pilotari profesionalen arteko emaitzak jakiteko. Hor ez zen odisea bukatu. Tente irten zen beribiletik. Bakarrik igo zituen ospitaleko eskailerak. Bera zen hango lehendakaria eta bezperan bilera trumoietsua izan zuen hantxe bertan. Justuan harrapatu zuten Pureza Aranzabal emaztearekin eta Arizmendiariarekin hitz egiteko astia izan zuen, baina hil egin zen. 1970eko apirilaren 18an”.

■ **JESUS LARRAÑAGA**

“Interioridades de una Utopía”



JUBAR
ATEAK. S.L.®

- BURDINAZKO ATEAK
 - ETA PERTSIANAK.
 - AUTOMATISMOAK.
 - KONPONKETAK.
- Kataide industrialdea, 18 • ARRASATE
Tel.: 943 79 10 20 • Fax: 943 79 08 17

Ipek
Denda

Isturriotz, 19 (Herriko plaza) ARRASATE


ARAOTZ Merenderua

Ingurune zoragarrian
lagun artean
ondo pasatzeko aukera

Araotz auzoa, 2 • OÑATI
Tel.: 943 78 35 26



ARAOTZ Merenderua
OÑATI
ARANTZAZU



HAUTESKUNDEAK

Hasiera bustia

Joan den ostiral goizean hasi zen hauteskunde kanpaina. Euriak eraginda akaso, kontua da EHk eta PSOEk izan ezik, besteek ez zutela ezer egin kalean. EHk Arrasateko bazter guztietan jarri zituen bere hormirudiak. Sozialistak, berriz, furgoneta batekin ibili ziren gora eta behera.

Sozialisten bazkaria

Kanpainaren lehen egunean Arrasateko zinegotzi eta auzo alkate sozialista guztiek bazkaria izan zuten Mondragon Hotelean. Kanpoan euriak goian behean egiten zuen bitartean, sozialistek menua jan zuten, hauteskunde gaiak jorrazten zituzten bitartean.

Jimeno herniak jota


Ohean harrapatu zuen Ignacio Jimeno zinegotzi sozialista HBko zinegotziek egindako kritikak. Azken bi hilabeteak hernia diskalak jota dago Jimeno, ohean. Kiroltasunez hartu zituen bere lanaren gaineko kritikak.

Giroa berotzen

Kalean gehiegi igarri ez bada ere, kanpaina giroa berotuz doa Arrasaten ere. Asteazkenean lehen ezpatak izan genituen herrian: Arnaldo Otegi, Iñaxio Oliveri eta Roman Sodupe. Ezker Batuak, berriz, Julio Anguita berbera eta Javier Madrazo ekarri ditu gaurko, ostiralerako.




Blanca Roncal
PSE (5.)



Xabier Zubizarreta
EH (8.)



Isabel Gallastegi
EA (11.)



Joseba Ugalde
EB (14.)



Jose Maria Loiti
EAJ (22.)




Antxon Mendizabal
EH (25.)

Sei arrasatear zerrendetan

Arrasateko sei lagun ditugu, alderdien zerrendetan sartuta. Blanca Roncal da hobetoen kokatuta doana: 5.a da Partidu Sozialistaren zerrendan. Xabier Zubizarreta 8.a da Euskal Herritarrok plataformaren zerrendan. Isabel Gallastegi 11. dago Eusko Alkartasunan. Joseba Ugalde 14. Ezker Batuan, Jose Mari Loiti 22. Eusko Alderdi Jeltzailearen zerrendan eta Antxon Mendizabal Tonino, 25. EHrekin.

Kanpaina Arrasaten



Asteazkenean hiru ekitaldi potikiko izan genituen: EHk plazan egin zuen mitin-jaia. Eusko Alkartasunak Mondragon Hotela aukeratu zuen. Eusko Alderdi Jeltzaleak, berriz, Monterron jauregia. Jende asko hurbildu zen hiru ekitaldietara.

Ez da giro udaletxean

Arrasateko Udaleko 134 langileek egun osoko greba egin zuten joan den ostiralean, udalak Tito Perkaz arkitektuari funtzionario kontratua ez egiteko hartu duen erabakiaren aurrean protesta egiteko.

Enpresa Batzordeak egin-dako prentsaurrean, arkitektua botatzeko Arrasateko hainbat presio talderen lana salatu zen, hala nola Parrokia Zaharberritzeko Batzordea, Mondragon Hotela, hainbat eraikitzaile eta MCCko zenbait kooperatiba.

Tito Perkazek berak azaldu zuen Parrokia Zaharberritzeko Batzordearekin izandako zenbait gorabehera. "Zer egin behar dut Eusko Jaurlaritzak emandako legeak esaten badu hirigune historikoe-tan egurra dagoen lekuan egurra ipini behar dela, beste alde batera begiratu? Ez". Arkitektuaren hitzetan, "hemen jardun dudana bitartean legea betearazten saiatu naiz, inori kalterik egin barik. Kexurik izan bada, zergatik ez didate ezer esan hemezortzi hilabete hauetan?".

Arkitektuaren aurkako neurriak haserrea piztu du langileen artean.

Alkateak bere aldetik, berretsi egin zituen joan den astean Paco Garciak esandako hitzak, esanez arkitektuak ez duela langune horrek eskatzen duen perfila betetzen, alegia. Bere hitzetan, "jende



Hainbat lanuzte egin dira udaletxean, arkitektuaren egoeraz protesta egiteko.

asko etorri zaigu kexuka arkitektuaren jarrera dela eta". Langileen presio neurriek ez dutela bere iritzia aldaraziko, gehitu zuen.

PERTSONAL BATZORDEA

Astearte goizean Pertsonal Batzordea bildu zen eta berretsi egin zuen Hirigintza Batzordeak hartutako erabakia, Tito

Perkazi kontratua ez luzatzekoa, alegia. Bilera iraun zuen bitartean udal langileek lanuztea egin zuten. Ondoren batzordea egin zen.

Presioak direla eta

Ostiral goizean egindako prentsaurrean, Jose Ramon Landak (ESK-CUIS) honako hitz hauek esan zituen:

"Alkatea eta bere gobernu-kideak ez dira konformatzen udaleko jendearen mugimenduak eta adierazpen askatasuna mugatzera. Badakigu telefono deiak egiten ari direla eta zenbait komunikabiderek diru laguntzak kentzeko meatxuak egiten ari direla. Eta baten bat, ATBko zuzendaria zehatz esan-

da, gustura ari dela lan horretan laguntzen.

Joan den egunean, egin ziguten elkarrizketa batean zati bat kendu ziguten. Esaten genuen presio taldeak daudela eta hainbat jende dagoela Loitiren lagunak direla esaten dutenak, mesedeak lortzeko. Guretzat hori da arazoaren funtsa".

ARKOREN ERANTZUNA

"Ostiraleko prentsaurrean Jose Ramon Landak esandako sala-

keten aurrean, Arko-ko zuzendariak zera esan nahi du: Bai Arrasate Telebistak eta baita Arrasate Pressek ere beti jokatu dutela eta jokatzeko ari direla erabateko autonomiarekin. Arko ez dago inoren aginduetara. Hantxartzeak egin ditzakegu, baina beti saiatzen gara informazioa modu zuzen eta egokian ematen. Kasu honetan ere berdin jokatu dugu. Horren froga da egun hauetan zehar komunikabide bietan ematen ari gareneko informazioa.

HIES

EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiralean
Setatik Betara.

Tel.: 943 79 26 99

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE



- Janari prestatuak
- Artisau produktuak
- Hainburgesak
- Pizzak
- Bokatak
- Bakailaoa

Mitarte 10 • ARETXABALETA
Tfnoa: 943 77 06 12 • Fax: 943 77 15 82

Jaiotzak

- Itziar Elkorobarrutia Insausti Irailaren 15ean.
- Nuno Andrade Loureiro Irailaren 20an.
- Garazi Larrea Uribesalgo Irailaren 24ean.
- Asier Uribarren Martin Irailaren 29an.
- Leire Nafarrete Garcia Urriaren 3an.
- Idoia Romero Llopis Urriaren 7an.

Ezkontzak

- Andoni Lazpita Martinez eta Raquel Casquete Fernandez. Zibilez. Irailaren 12an.
- Kepa Oliden Bergara eta Miren Anttoni Landaluze Arregi. Elizaz. Irailaren 12an.
- Juan Manuel Maltras Rodriguez eta M^o Teresa Ribeiro Costa. Zibilez. Irailaren 12an.
- Diego Antonio Ramirez Davila eta Maria Gema Iñiguez Diaz. Elizaz. Irailaren 19an.

Heriotzak

- Rafael Tercero Nova. 73 urte. Irailaren 18an.
- Gregoria Quintero Martinez. 80 urte. Irailaren 19an.
- Florentina Orue Etxagibel. 92 urte. Irailaren 20an.
- Manuel Urbano Guerrero. 50 urte. Irailaren 19an.
- Carmen Alustiza Gabiria. 68 urte. Irailaren 21ean.
- Urko Bedia Perez. 20 urte. Irailaren 29an.
- María Lourdes Uranga Etxeberria. 37 urte. Urriaren 3an.
- Rafael Barrena Garitano. 77 urte. Urriaren 4an.

Musikak etxea izango du

Arrasteko Udalak onartu berri du Arrasateko musikaren inguruko talde gehientsuenak batuko dituen Musikaetxea izeneko proiektua. Proiektu hau, Arrasate Musikalek erabiltzen duen *Aprendices* Eskola bota behar dutela eta, talde honi toki berria bilatzeko beharrraren ondorioz sortu zen. Cerrajerako eraikin nagusia begiz jo da Musikaetxea ezartzeko leku apropos bezala. Izan ere, Arrasate Musikal



Eraikuntza honetan ezarriko da Musikaetxea


hantxe egoteaz gain, herrian dauden musikaren inguruko beste zenbait taldek ere izango dira, hala nola, Trikitrixa taldea, Txalaparta, etab. Egoitza honetan, talde bakoitzak bere gelak izango ditu. Entzutegi bat ere egingo da. Egitasmo hau garatzeko Arrasateko Udalak 80 milioi pezetako aurrekontua aurreikusi du. Lanak datorren urteko udazkenerako bukatuta egongo direla espero da.

HBren salaketak

Herri Batasuneko sei zinegotziek prentsaurrekoa eskaini zuten asteartean udal txean. Gaur egun Euskal Herrian bizi dugun egoera esperantzagarria aipatu ostean, gogor kritikatu zituzten alkatea eta udal gobernuaren lan egiteko modua. Udaletxeko erabakiak udal egituretatik kanpo eta izkutukeria handirekin hartzen direla salatu zuten. Ondoren, sailez sail kritikatu zuten udal gobernuaren jarduna. Ignacio Jimenori ere iritsi zitzaizkion kritikak. Honek neurri batean behintzat onartu egin ditu kritika horiek, bere sailak ez dielako egindako lanaren informazio pasatu beste alderdiei.

Zentral eolikoaren aurka

Asteartean Elgeako zentral eolikoaren aurkako prentsaurrea eskaini zuten Euskal Herriko hainbat talde ekologista eta mendizalek. Energia eolikoaren alde daudela adierazi ostean, gaur egun dagoen zentral eolikoaren plangintzaren desegokitasuna eta haren ezarpenak ekarriko lukeen hondamendia, energia eolikoaren monopolizazioa eta mendien industrializazioa salatu zuten. Zentral eolikoaren aurka Elgean eta Hirukurutzetan egingo diren kanpaldirako (larunbatean) eta mendi ibilaldirako (igandean) deialdia egin zuten arrasatear guztien artean.



Tailaje
zabalena
zure esku

Laura

Erdiko Kale, 30 • ARRASATE Tel.: 943 79 05 80



- *Karta eta eguneroko menuak*
- *Bakailaoan espezializatuak*




Berriz ere zabalik!!

Astelehenetan itxita

J A T E T X E A

Rosario, 4 LEINTZ-GATZAGA Tel.: 943 71 54 94



weru®

weru®
Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95
ARRASATE




Salterain

PVC-zko ate eta
leihoez gain:
mocketak,
zoru arinak,
kortxoa,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, testila...



ONGI ETORRI ARKORA!

Pasa den asteazkenean bat-batean Arkoren etxea jendez bete zen. Oñatiko Larraña barnetegian dabilzan 22 lagun etorri ziren gu eta gure lana ikustera. Bisitaldian AEDn, ludotekan eta Arkon izan ziren. Argazkian bizkaitarrak, gipuzkoarrak eta arabarrak zeuden, guztiak IVAPEko langileak.



ESTRESAREN AURPEGI ALAIA

Eider, Herri Komunikabideei buruzko Jardunaldiak koordinatzen ari den emakumea, jo eta zeharo harrapatuta ikusi dezakezue Arkotik zehar paseatzen. Geldiunerik gabe, azaroaren 27ko eta 28ko ekitaldiak prestatzen dihardu. Argazkian, atsedenaldirik batean harrapatu genuen. Espero dezagun jardunaldiak bukatutakoan osorik egotea. Animo neska!



ESKER, ONEKO KONTZERTUA

Eskerrik beroenak lagundu diguzuen guztioi!

Eguna: Urriaren 17

Tokia: Amaia Antzokia

Ordua: arratsaldeko 20:00etan



Maika argazkide

Esango al diot?

Zertan egongo da pentsazen?



ZEIN POLITA...

ONDO BIZI!

Mari Carmen Renda eta Marco Dasilva Rodriguez ekainaren 27an ezkondu ziren San Andresko elizan. Gero Tenerife uhartean izan ziren goxo-goxo ezkon bidaiaz gozaten. Ea etorkizunean ere berdin segitzen duten.

Larunbatean, urriaren 17an, Juanra eta Ane ezkonduko dira. Beraien koadrilaren partetik: "zorionsuak izan eta besarkada bat". Gure aldetik, berriz, pazientzia eta umore ona. Ondo izan!

LANEAN ERE DOTORE

Kristina, Jaione eta Izaskun prest daude lanean hasteko. Baina normalean baino dotoreago jantzi dira. Lanari ekiteko modu polita, Maritxu egunean bada gehienbat. Seguru laneguna ohi baino laburragoa egin zitzaie.



Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72



Pavimentos AGR ARROZTEGIA

Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta biltegia:

Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

TTUKUN

Fotokopiak
Liburu josteak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a

Ferrerrias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62



ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARKOren 99ko Gida Komertziala prestatzen ari gara dagoeneko.



Aurten, Kike Dapena eta Oihana Jausoro izango dituzu bisitari zure tabernan, dendan edo lantegian komertzial lanak egiten.

Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagako merkatarien telefonoak jasoko dira Gida 99an.

ARKOren gidan azaldu nahi baduzu edo berri gehiago jaso nahi izanez gero, deitu ARKOra (943 77 08 15).

Gida 99, zure lana errazteko.

Gida 99



DENA AUTO

2. ESKUKO AUTOMOBILEN GIDA

ARRASATE PRESS eta BERRIGARAren, 2. eskuko autoen hilabetekaria.
2. zuzendaria, 1998ko urria.

Komertziala: Nerea Lazpiur. Diseinua eta maketazioa: Iñaki Iturbe - Txos Azurmendi.
Tirada: 11.500 ale. Tf.: 943 76 03 97. Faxa: 943 76 29 77.

35.000
IRAKURLE
Berrigara Arrasate

MARKA ETA MODELOA MATRIK URTEA EZAUGARRIAK PREZIOA

ALDIBI AUTOAK. Zigarrola, 1. Arrasate. Tf. 943 71 20 02

Fiat Punto 60 SK		1996	AH, IK, LK, 3 ate, 25.000 Km.	1.100.000
Opel Vectra 2.0		1992	AG, AH, Metalizatua, 4 ate, 92.000 Km.	1.200.000
Fiat UNO 1.4		1993	AH, KE, 3 ate, 94.000 Km.	700.000
Renault Clio 1.9 RT		1991	KE, IZ, 120.000 Km.	850.000
Seat Ibiza 1.5		1990	3 ate, 101.000 Km.	450.000

AMETS TAILERRAK. Berezano auzoa 5. Oñati Tf. 943 78 19 50

Fiat Ducato	SS-AW	1996	Autokarabana, 6 plaza	3.175.000
Ford Mondeo 1.8 TD Fam.	SS-AW	1996	ABS, AG	2.100.000
Ford Mondeo 2. Ghia	SS-AP	1993	SE, ABS, AG	1.600.000
Ford Fiesta 1.1	SS-AN	1992	5 ate	600.000

ASEGINOLAZA TAILERRAK. Urteaga 37. Bergara. Tf. 943 76 12 50

Peugeot 306 XR 1.4	NA-7982-AJ		KE, IZ, IK, LD	1.100.000
Ford Scort Ghia 16V	M-9701-UW		Airbag, AG, IZ, IK, KE	1.625.000
Ford Mondeo CLX 16V	SS-7597-AS		Airbag, AG, IZ, IK, KE	1.375.000
BMW 320 I	LO-3529-J		LD, IZ, KE	550.000
Peugot 205 X2D	SS-5264-AJ		3 ate, Diesela	625.000

AG: Aire girotua AH: Aleaziozko haguak AL: Alarma BA: Balbula anitza IE: Ispilu elektrikoak HT: Hard top IK: Irrati-kaseta IZ: Ibxigailu zentralizatua KE: Kristal-jasogailu elektrikoak
KL: Klimatizagailua LD: Lagunduriko direkzioa LGT: Lau gurpiletako trakzioa LK: Laino-kontrako argiak LKA: Laino-kontrako aurreko argiak NT: Narruzko tapizeria SE: Sapai elektrikoak

*1: 300.000 pta.ra arte

*2: 300.000 - 500.000pta.

*3: 500.000 - 750.000pta

*4: 750.000 - 1.000.000 pta.

*5: 1.000.000 - 1.500.000 pta

*6: 1.500.000 - 2.000.000 pta.

*7: 2.000.000 pta.tik aurrera



Auto-errekanbioak

Ibargarai 33, behea. BERGARA
943 76 29 95



Automobilaren
karburazio eta
elektronika



Uribarri etorbidea 16.
Arrasate. 943 79 73 58

AUTO DESGUACES BERGARA



943 76 35 47 (desguazekoa)
943 79 76 33 (etxeakoa)

BIGARREN ESKUKO PIEZAK
PNEUMATIKO BERRIAK ETA ERABILITAKOAK
GRUA ZERBITZUA



TXURRUKA AUTOAK S.L.

- Garajea
- Garraio zerbitzua
- Taxi zerbitzua

Aitziturri 5. San Lorentzo. Bergara.
Tf. eta faxa: 943 76 12 36.

MARKA ETA MODELOA	MATRIK	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
-------------------	--------	-------	-------------	---------

AUTOLEYMA. Aitziturri 5. Bergara. Tf. 943 76 09 30

Peugeot 806 ST 2.0	M-UM	1997	Full equiped	*7
Peugeot 106 Sketch 1.1	M-UP	1997	Oinarrizkoak	*4
Peugeot 306 XS 1.6	M-UC	1997	3 ate, AG, IZ, KE	*5
Ford Fiesta 1.4 Ghia	CC-K	1991	IZ, KE, 5 ate	*2
VW Jetta 1.6	SS-AJ	1990	IZ, KE	*3
Ford Orion Diesel	SS-AJ	1990	IZ, KE	*1
Renault 11 1.7 Gasolina	SS-Z	1987	Oinarrizkoak	*1
Peugeot 205 GT	SS-W	1986	Oinarrizkoak, Merkea	*1

BERGARA AUTOAK. Amillaga 10. Bergara. Tf. 943 76 04 58

Audi A4 TDI	Ipintzeko	1996	KL, ABS, Airbag, IZ, KE	Kontsultatu
Audi 80 TDI	Ipintzeko	1992	AH, 4 KE, IZ, Alarma	Kontsultatu
Audi 80 TDI Familiar	Ipintzeko	1993	AG, KE, IZ	Kontsultatu
Mercedes 300 TD	Ipintzeko	1989	AG, KE, IZ, ABS,	Kontsultatu
Peugeot 405 1.9 T	SS-AS	1994	AG, KE, IZ	Kontsultatu
VW Transporter 2.4 D	Ipintzeko	1994	LD	Kontsultatu
Peugeot 306 D	Ipintzeko	1996	AG, Ah, Alarma	Kontsultatu
BMW 325 TDS	Ipintzeko	1996	KL, Airbag, ABS	Kontsultatu

BERRIA GARAJEA. Amillaga 49. Bergara. Tf. 943 76 22 43

Audi 80 1.8 E	SS-AB	1988	LD, 4 KE, IZ	*3
Ford Mondeo 2.0 Ghia	SS-AP	1993	Full equiped	*5
Ford Sierra 2.0 GL	SS-Z	1987	Kilometro gutxi	*1
Citroen C15 E Club	SS-AC	1988	5 Plaza	*1

GURTZAIN GARAJEA. Almirante Bikuña z/g. Legazpi. Tf. 943 73 00 92 / 929 43 74 12

Citroen C-15	SS-AL	1992	4 Kubieta berriak	675.000
Land Rover 88	SS-L	1986	Egoera onean	400.000
Nissan Patrol 6 C	SS-AG	1989	Kablestantea	1.500.000
WV Transporter	Ipintzeko	1988	Margotu berria, Mekanika ona	550.000
Suzuki Vitara GT	SS-AK	1991	Kilometro gutxi	1.370.000

AG: Aire girotua AH: Aleaziozko hagnak AL: Alarma BA: Balbula anitza IE: Ispilu elektrikoak HT: Hard top IK: Irrati-kaseta IZ: Ibigailu zentralizatua KE: Kristal-jasogailu elektrikoak
 KL: Klimatizagailua LD: Lagunduriko direkzioa LGT: Lau gurpiletako trakzioa LK: Laino-kontrako argiak LKA: Laino-kontrako aurreko argiak NT: Narruzko tapizeria SE: Sapai elektrikoak

*1: 300.000 pta.ra arte

*3: 500.000 - 750.000pta

*5: 1.000.000 - 1.500.000 pta

*7: 2.000.000 pta.tik aurrera

*2: 300.000 - 500.000pta.

*4: 750.000 - 1.000.000 pta.

*6: 1.500.000 - 2.000.000 pta.

MARKA ETA MODELOA	MATRIK	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
ION AUTOAK. Amillaga 36. Bergara. Tf. 943 76 47 49				
Citroen AX Diesel	SS-AL	1991	IK,3 ate, 6 hilabeteko garantia	575.000
Citroen ZX Turbo Diesel Volcane	SS-AS	1994	KE, IZ, LD, AH, IK, 6 hilabeteko garantia	1.500.000
Fiat Tipo 1.8 16V	VI-M	1991	LD, IZ, KE, AH, 3 hilabeteko garantia	650.000
Opel Corsa GSI	SS-AJ	1991	Ahinbat osagarri,3 ate, 3 hilabeteko garantia	750.000
Peugeot 405 GRDT	SS-AJ	1990	Ahinbat osagarri, 6 hilabeteko garantia	900.000
R-21 Manager	SS-AM	1992	LD, IZ, KE, 6 hilabeteko mermea	850.000
ZX enpresakoa	Ahinbat	96-97	Urte bateko garantia oso	kontsultatu

MARKIEGI Autoak. San Lorentzo z/g. Bergara. Tf. 943 76 35 09

Nissan Primera 1.6 SLX	SS-AM	1992	Egoera onean, IK, Metalizatua	*4
Citroen C 15 Gasolina		1989	5 plaza, kristaldua	*2

MECA TAILERRAK. San Andres Auzoa, 8. Arrasate. Tf. 943 79 59 99/09

Renault 21 TDX	VI-L	1990	5 ate, AG, ABS	795.000
Renault 19 TSE Chamade	SS-AF	1989		585.000
Renault Laguna RT 2.2 DT	SS-AY	1997	AG, Goi mailako osagarriak	2.250.000
Renault 21 GTX	SS-AK	1991	AG	525.000
Renault Clio RT 1.4	SS-AL	1991	Goi mailako osagarriak	515.000
Renault Laguna RT 2.0	SS-AZ	1997	AG, Goi mailako osagarriak	1.975.000
Peugeot 205 GRD diesel	SS-AK	1991		585.000
Opel Corsa 1.2	SS-AG	1989		375.000
Citroen ZX Diesel Avantage	VI-O	1991		995.000
Citroen Xantia 1.9 DT	SS-AX	1994	AG	1.250.000

MUGARRI. Araba etorbidea z/g. Arrasate. Tf. 973 79 07 44

Ford Scort TD 90 zaldi		1994	Full equiped	
------------------------	--	------	--------------	--

AG: Aire girotua AH: Aleaziozko hagnak AL: Alarma BA: Balbula anitza IE: Ispilu elektrikoak HT: Hard top IK: Irrati-kaseta IZ: Ixigailu zentralizatua KE: Kristal-jasogailu elektrikoak
 KL: Klimatizagailua LD: Lagunduriko direkzioa LGT: Lau gurpiletako trakzioa LK: Laino-kontrako argiak LKA: Laino-kontrako aurreko argiak NT: Narruzko tapizeria SE: Sapai elektrikoak

*1: 300.000 pta.ra arte

*3: 500.000 - 750.000pta


*5: 1.000.000 - 1.500.000 pta

*7: 2.000.000 pta.tik aurrera

*2: 300.000 - 500.000pta.

*4: 750.000 - 1.000.000 pta.

*6: 1.500.000 - 2.000.000 pta.

LAGUN GARAJEA 

Javier Gallastegi Arenaza Tailer profesionala

- Mekanika orokorra
- PreITV

ORAIN HELBIDE BERRIA!
Santalaiz, 3 • Bergara • Tel.: 943 76 11 20

Dena 4x4

Gurzain garajea
Almirante Bikuña, z/g LEGAZPI
Tel.: 943 73 00 92

Adi chistariak! 

GARAJE MURILLO

Mekanika orokorra

Leizeaga, 4 • BERGARA
Tel.: 943 76 13 84

 **IVECO**
El mundo del transporte

MARKA ETA MODELOA	MATRIK	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
Ford Scort TD familiarra		1996	Full equiped	*
Ford Scort D familiarra		1993	Full equiped	*
Peugeot 405 TD		1992	Full equiped, AG	*
Peugeot 405 TD		1992	Full equiped	*
Opel Vectra GT 2.0		1991	Full equiped, AG, ABS	*
Peugeot 405 TD		1990	Full equiped, RS ekipoa	*
Ford Mondeo TD		1994	Full equiped, AG	*
Toyota Land Cruiser TD		1998	Full equiped, AG, Airbag bikoitza	*
Nissan Patrol V6 Diesel		1992	Full equiped	*

* 40 auto baino gehiago 200.000 eta 3.000.000 pta. artean. Zatoz ikustera!

OLA TAILERRAK. Olabarrena z/g. Bergara. Tf. 943 76 47 74

Citroen C15 Diesel	SS-AB	1988	Oinarrizkoak	400.000
Opel Kadett		87-88	4 eta 5 ate	Negoziatzeko
Opel Vectra 1.7 TD	SS-AW	1996	Full equiped	2.050.000
Ford Nomade 1.8 TD	SS-AS	1994	Oinarrizkoak	Negoziatzeko
WV Golf GTI 2.0i	SS-AP	1993	AG, AH, KE, IZ, LD, IK, etab.	1.600.000
Peugeot 605 SRDT	SS-AK	1991	Full equiped	1.300.000
Audi 100/200		1990	Full equiped	Negoziatzeko
Citroen AX 1.1	BI-AT	1987	3 ate	325.000
Isuzu Trooper 2.8 Turbo Intercooler	SS-AJ	1990	7 plaza	Interesgarria

* Auto ugari 500.000 pta. arte. Zatoz ikustera!

SEAT UDALAITZ. Musakola z/g. Arrasate. Tf. 943 79 18 80

Ford Mondeo GLX 1.8	SS-4012-AP	1993	Full equiped	*5
Ford Mondeo 2.0 Ghia	SS-5111-AP	1993	AG	*5
Renault 21 Manager	SS-0177-AF	1989	AG	*3
Renault Super 5 GTL	SS-3651-AB	1988		*2
Opel Vectra 2.000	Z-4530-AJ	1990		*3
Citroen TDI Turbo	SS-7908-AL	1991	AG	*3
Audi 90 2.2	SS-8641-AS	1994		*4
Fiat Uno SX	SS-5325-AM	1992	5 ate	*2
Golf 1.6 CL	SS-8193-AF	1989		*2
Opel Kadett 1.6	M-HW	1987	5 ate	*2
Opel corsa 1.4	SS-2382-AK	1991	5 ate	*2

TXOMIN GARAJEA. Lizarraga auzoa. Antzuola. Tf. 943 78 70 77

Citroen AX 1.1	SS-AB	1988	IK, 2 ate	*1
----------------	-------	------	-----------	----

AG: Aire girotua AH: Aleaziozko hagnak AL: Alarma BA: Balbula anitza IE: Ispilu elektrikoak HT: Hard top IK: Irrati-kaseta IZ: Ibxigailu zentralizatua KE: Kristal-jasogailu elektrikoak KL: Klimatizagailua LD: Lagunduriko direkzioa LGT: Lau gurpiletako trakzioa LK: Laino-kontrako argiak LKA: Laino-kontrako aurreko argiak NT: Narruzko tapizeria SE: Sapai elektrikoak

*1: 300.000 pta.ra arte

*3: 500.000 - 750.000 pta

*5: 1.000.000 - 1.500.000 pta

*7: 2.000.000 pta.tik aurrera

*2: 300.000 - 500.000 pta.

*4: 750.000 - 1.000.000 pta.

*6: 1.500.000 - 2.000.000 pta.

Euro Truke, made in Aretxabaleta

Aretxabaletako Diara enpresak Euro Truke ize-neko aparailua diseinatu du. Pezetatetik euro tara edo alderantzizko operazioak egin daitezke aparailu berriarekin. Hemendik aurrera, jakin nahi dugunean 500 pezetako aldizkariak zenbat balio duen eurotan, Euro Truke erabil dezakegu.


Lehenengo Euroaren balioa sartuko diogu, gero 500 markatu eta Euroaren E teklari eman. *Voila*: 3 euro. Gauza bera egin daiteke, baina alderantziz.

Aparailu hau oso erabilgarria izango da datorren urtarrietik aurrera. Orduan truke finakoak ezarriko dira Europako Batasuna osatzen duten herri guztietan eta hiru urtean zehar euroak eta tokian tokiko dirua erabili ahal izango dira.

Diarako profesionalak aspalditxo konturatu ziren euroak hainbat premia sortuko zituela eta buruari bueltak ematen hasi ziren. Joan den urtarrian talde bat jarri zuten lanean eta talde horren lana izan da

Euro Truke ateratzea. Juan Aiesta eta Ander Hernandez buru-belarri ibili dira proiektu honetan. "Hau ez da kalkulagailu arrunta, baizik eta Euroarekin lan egiteko propio diseinaturiko aparailua. Italiara edo beste norabaitera baldin bazoaz, hango diruaren balioa sar diezaioketu eta liraren eta euroaren trukea izango duzu instantean".

Diarak kide inportantea aukitu du proiektu honetan: Holandako Philips enpresa multinazionala. Europara zabaldu aurretik, lehen frogak Espainian eta Portugalen egin-gor dira. Dena ondo atera



Diarak diseinatu du.

ezkero, Europan barrena zabalduko da. Hil honen bukaeran edo azaroaren hasieran salgai jarriko da.

Hasteko, bi modutan salduko da Euro Truke. Banaka, saltoki handietan nahiz txikietan, propio prestatutako ontzi berezietan. 1.000 pta baino gutxiagobalioko du. Sei euro baino gutxiago, alegia. Enpresa handiei ere eskainiko zaie, beren anagrama eta guzti, bezeroen artean bana ditzaten.

Diseinua Aretxabaletan egin eta gero, Euro Truke Txinan egiten da eta MCCren ordezkari arduratzen da kalitate kontrolaz. Pila txiki batekin dator, hiru urte baino gehiago iraun dezakeena.

Euro Truke Diara enpresaren azken produktua da. Diara Arrasaten sortu zen, 1986an, Saiolanetik. Urte pare bat geroago Aretxabaletako industrialdera joan ziren. Gaur egun 12 bazkide dira eta 18 langile. Diseinu industrialera bere jarduerarik garrantzitsuena.

Euroa

Jarraitu ahal izango dut nere kreditu txartelarekin?

Bai. Zure oraingo txartelak dagoneko ahalbidetzen dizu ordaintetako pezetak ez diren beste dirutan egitea.



Euro baten balioa

167,3 PTA


Merkataritzako jardunaldia

EUROA

LEKUA: Lantegi Eskolako Aretoa.
EGUNA: 1.998ko urriak 19, larunbata.
ORDUA: arratsaldeko 14:15
PREZIOA: 500 pta. (Ibai-Arteko bazkideak dohainik)
SARRERA TXARTELAK: Hire/ Bazar Tokion
HIZLARIA: Gipuzkoako Bazkundera

ANTOLATZAILEAK

BABESLEA



Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Salla

- X Bataioak, jaunartzeak, enpresa bazkariak eta lagunartekoak
- X Karta eta menu berezien zerbitzua

DENBORALDIKO PLATERAK, GIRO ONENEAN



BASTER-ALDE
J A T E T X E A

Galartza auzoa • ARETXABALETA

Tel.: 943 79 24 58

Mondragoe Monleon bihurtu zenekoa



1934an etorri zen Baroja Arrasatera, 62 urtekoa.

Monleon Mondragon zen, Arrasate, Pio Barojak 1936an argitaratu zuen "El cura de Monleón" eleberrian. 98ko Belaunaldiaren lehen mendeurrena betetzen den honetan, belaunaldi haren partaiderik nabarmenetako bat, Pio Baroja donostiarra, ekarri nahi izan dugu gure orrialde-etara. Barojak izan zuen zeri-kusirik, bai, gure herriarekin. "El Cura de Monleón", hain zuzen, da Arrasaterekin duen loturarik handiena.

Hogeita hamargarren urteetako Mondragoe azaltzen da Barojaren eleberri ezezagun honetan. Liburuak protagonista nagusi bat eta hiru atal nagusi ditu: lehenean Javier Olanaren gorabeherak kontatzen ditu, harik eta apaiz egiten den arte; bigarrena Monleon (Arrasate) herrian kokatzen da ia erabat, Olanaren hemen jarri baitzen abade; hirugarrena, beriz, Arabako Baroja herri txikian gertatzen da, Monleonen sorturiko ezinikusiek eta elizako agintariek hara zigortu zuten eta eleberriko protagonista nagusi,

Jabier Olanaren apaiza.

Zerk ekarri zuen Pio Baroja Arrasatera? Antza denez, 1932an bazebilen eleberri bat idazteko oharrak hartzen eta eskemak egiten. Gasteizen

kokatzeko asmoa omen zuen eta badirudi egonaldi labur bat egin zuela Gasteizko apaiz-gaitegian, hango giroaz hobeto jabetzeko. Orduan 1934ko urriko matxinada eta heriotzak

"Monleonek milatik gora langile zituen fabriketan beharrean; burgesiak erosotasun handiak zituen; zinetoki ederra zegoen plazatik hurbil..."



a. Argazki hau urte hartakoa da, Beran. Ezkerrekoa Julio Caro Baroja da.

gertatu ziren Arrasaten. Antza denez, Mondragoeko gertaerak zirrara handia eragin zuten bazterretan. Baita Barojaren bihotzean ere. Berehala, iritziz aldatu eta bere buruan egos-

ten ari zen eleberria Arrasaten kokatuko zuela erabaki zuen.

Liburuaren bihotzean 1934ko urrian Arrasaten gertatu ziren ekintzak eta hilke-

“Langile gehienak sozialistak ziren. Erlijioa gainbehera zihoan haien artean. Baserritarren artean, ostera, erritualez josita eta sineskeria ilunez nahasirik...”

Arrasateko apaizak

Monleonen agertzen diren apaizetatik, badakigu hiru behintzat garai hartan Arrasaten zeuden abadeak zirela: Hona hemen hiruron fikziozko izenak eta benetakoak.

• **On Patrizio**, Monleongo parrokoa. “Moldakorra eta herriko kontuetan sartzea gustatzen ez zitzaiena. Zenbaiten ustez ganora eskasekoa eta batzuen eta besteetan esanetara makurtzen zena. Hizlari motela”. Garai hartan Mondragoeko parrokoa on Jose Joakin Arin zen.



• **On Mariano**, apaiz laguntzailea. “Gizon gogorra, lehorra, bortitza, grina gogorrekkoa eta izpiritu hotzekoa. Ezerk ez zuen hunkitzen. Ehiza zuen gustuko”. Barojak oso gogor azaltzen du. Datu guztien arabera, abade hau on Pako Imaz zen.



• **On Martin**, organo jolea. “Gizon barnerakoia eta mistiko itxurakoa. Antza denez, zorrotz betetzen zituen abade lanak”. Barojaren luman salbatzen den abade bakarra da, protagonista salbu. Itxura guztien arabera, benetako On Martin Dionisio Isasmendi organo jolea izango zen. Oraindik ere bizi omen da, Bilbon. 95 urte dituela.



tak daude. Haien ondorioz, Marcelino Oreja eta Dagobertero Resusta, Unión Cerrajerako nagusiak biak eta parlamentarioa lehena, hil egin zituzten. Barojak horrela kontatzen du:

“Antza denez, sozialistek, batzuen ustez, salbatu egin nahi zituzten preso zituztenak, batez ere hiru printzipalenak, eta buru egiten zuen euskaldunak esan zien:

—Irten zaitezte hortik, ortua zeharkatu, hesi horren gainetik errekarren beste aldeara pasatu, basoan sartu eta ihes egin.

Hiru bahituek esandakoa

egin zuten, eta irteteen, kanpotarra zen sozialistako batek esan zuen:

—Salbatu egin behar dira zital horiek? Atzera!—eta tiro egin zuen pistolarekin, eta hamar-hamabik batera egin zuten tiro, bi hilik eta bat zauriturik utziz.


Banderizoen garaiko basakeria zirudien”.

CAFE UNIVERSAL

Horrela bada, 1934ko azaroan, hilabete beranduago, Mondragoera etorri zen Pio Baroja. Ordurako 62 urte zituen eta ospe handia, bere eleberriak eta

(27. orrialdean jarraitzen du)

Barojaren filiak eta fobiak



Ehundik gora literatura lan argitaratu zituen Barojak.

Pertsonaia nagusien ahotan edo narratzailearen ahotsean, sarri askotan Barojaren filiak eta fobiak agertzen dira liburuan zehar.

FILIAK

• *Euskal folklorea*. Askotan aipatzen ditu Barojak Bilintxen edo Iparragireren abestiak. Baita herri kantak ere. Atseginez aipatzen ditu, nahiz eta askotan txarto aldatuta.

• *Fray Luis de León*. Honen poesiak ere hainbat aldiz aipatzen ditu, gogo onez.

FOBIAK

• *Homosexualak*. Gaixotasun moduan aurkezten du. "Invertido" deitzen dio don Juani, mutil zale amorratuzen gizon dotore eta itxuratiari.

• *Juduak*. Liburuan zehar askotan agertzen da sentimendu antisemita oso gogorra. Juduak diruzalatasuna, xuhurkeria, eta munduko keria gehienen sortzaile gisa azaltzen ditu. Behin herri deizida deitzen die.

• *Elizaren agintariak*. Apaizen artean denetik ikusten du Barojak, baina gotzainak, kardenalak eta bestelako agintariak ez ditu bat ere ondo ikusten. Aginte gose eta errukigabe ikusten ditu.

• *Victor Hugo*. *Misera-bleak* agertzen da behin eta berriro, baina gogotik jorrazten du idazle frantziarraren lana.

Juan Ignacio Montiano

"Liburu hau gehiago da saioa eleberria baino"

"Pio Barojak ehun eleberri baino gehiago idatzi zituen. Emankorra zen eta oso gai desberdinak batera lantzeko ahalmena zuen. Gustuko dut Baroja, baina atseginago ditut prosa eta ekintza orekatzen saiatzen direnak. Hala ere, nahiko nuke idazle moduan Barojaren zatitxo bat izatera iritsiko banintz.

Uste dut "El Cura de Monleon" eleberria baino gehiago saio bat dela. Liburuan zehar hainbat gai jorrazten ditu. Esan liteke kapitulu bakoitza gai baten inguruko iritzi artikulu bat dela: erotismoa, politika... Atentzioa eman zidan Monleon-Arrasate deskribatzerakoan, nola hasten den Hamlet hasten den modu bertsean: 'Zerbaitek ustel usaina zuen Danimarkan...'. Ene iduriko, Barojak bi *alter ego* erabiltzen ditu lan honetan: On Jabier apaiza eta Basterretxe sendagilea. Bataren bidez erlijioa aztertzen du; besteak zientziaren esparruaz aritzeko aukera ematen dio.

Arrasateri dagokionez, Santa Barbara da bere izenez aipatzen duen toki bakarra. Inguruko mendiak, ibaiak eta kaleak aipatzen ditu, baina izenak erabili barik".



Juan Ignacio Montiano, idazle arrasatearra.

(25. orrialdetik dator)

kazetaritza lanek sona handia eman baitzioten. Plaza ondo-ko Cafe Universalen —gaur egun Urizar ostatuan— hartu zuen ostatu. Mondragoeko jende asko izan omen zen Pio Barojaren gelan, egun batzuk lehenago herrian gertatutakoaren berri ematen eta herriko giroa eta pertsona ezagunak azaltzen.

MONLEONGO PARAJEAK

“El Cura de Monleón” irakurtzen duen mondragoetarrak ez du arazorik izango liburuko toki asko eta asko ezagutzeko: Udaltx, Murugain eta Anboto, Santa Barbara, hiribarruko kaleak, plaza eta elizak, Unión Cerrajera, Maala kalea eta Aramaio ibaiak.

Javier Olan protagonista nagusiaren etxea Maala kalean dago, Jose Letona zenaren ustez Eugenio Resustaren etxean. Gaur egun Deba Garaia Inmobiliaria dagoen tokian hain zuzen. Oso hurbil 34an sozialistek zuten Herriaren Etxetik —Okendo Kirolak denda dagoen tokian—.

MONLEONGO GIROA

Nolako giroa aurkitu zuen Pio Barojak Arrasaten? Hona hemen haren azalpena: “Monleón, herri alaiak eta sentsualak, ondo bizi zen; milatik gora langile zituen lantegietan beharrean; burgesiak erosotasun handiak zituen; zinetoki ederra zegoen plazatik hurbil, etxe aberatsak eta luxuzkoak, beribil asko, goi enpleguak eta ingeniariak, ministroek adina irabazten zutenak.

Erdigunea dendaz beteriko hiru kale nagusik osatzen zuten, zenbait kalezulo, plazak eta gero auzoek. Eskulangileak alaiak ziren eta sarri entzuten zen nesken artean algarak eta hau bezalako esaldiak: ‘Ene! Zelako barreak egin genituen!’.

Lekukoak:


Agustin Azkoaga

Agustin Azkoagak 21 urte zituen 1934ko azaro hartan, Cafe Universaleko jabeak deitu zionean etortzeko, Pio Baroja zegoela barruan eta herriko jendearekin hitz egin nahi zuela esanez. Agustin eliz mutil izana zen eta artean goi batxillerra ikasten ari zen Oñatin.

Arrastaldek 14:00ak izango ziren Cafe Universalen gela batean sartu zenean. Pio Baroja aurkitu zuen, bere bizar ezagunarekin eta lepokoa jantzita zuela. Orri batzuk zituen esku artean. “Orduan ez nion sinpatia

handirik, antiklerikala zelazituen 1934ko azaro hartan, Cafe Universalen jabeak deitu zionean etortzeko, Pio Baroja zegoela barruan eta herriko jendearekin hitz egin nahi zuela esanez. Agustin eliz mutil izana zen eta artean goi batxillerra ikasten ari zen Oñatin.

Monleongo pertsonaia-rik nagusienak jende haien testigantzetan oinarrituta bide daude, hala nola herriko abadeak.



Agustin Azkoaga.

Herriaren bizimodu modernoa eta industrialak eta inguruetako arkaikoa eta baserri girokoa harrizko erraldoi haiek, Monleongo Haitzek, begiratzen zituzten.

Langile gehienak sozialistak ziren. Erljioa gainbehera zihoan haien artean. Baserri-tarren artean, osterak, errituak jositak eta sineskeriak ilunez nahasirik. Burgesia harrotu egiten zen bere katolikotasunaz, baina itxura hutsak ote ziren susma zitekeen”.

NOBELAREN ARGITALPENA

Liburuaren lehen argitalpena 1936an egin zen. Gerra Zibila piztu zen urtean, alegia, “La juventud perdida” trilogiaren barruan. Hasieran sekulako iskanbila sortu zuen, batez ere eskuin giroko zenbait egunkariren artean. Kontuan izan eleberririk honetan Barojak gogor astintzen duela kristautasuna.

Hortik aurrera, gerraren ostean, ahazturik geratu zen, harik eta 1975ean, Pio Barojaren jaiotzaren lehen mendeurrena ospatzeko, berriro kaleratu zen arte. Bigarren argitalpena Barojatarren Caro Raggio Editor argitaletxeak egin zuen eta nahiko arrakastan izan zuen Euskal Herrian. Harrezkero, ez da gehiago liburudendetan ikusi. ■



Liburuaren lehenengo argitalpena.

Joxe Aranzabal

PATXI MONTERO (BIOLUR-EKO KOORDINATZAILEA)

“Geroz eta etorkizun hobea ikus

Patxi Montero arrasatearra da sortzez, gaur egun Elgetan bizi den arren. Musikan ibilia eta AEKn irakasle izana, komunikabideetarako jauzia egin zuen gero. Arrasate Irratian, Gipuzkoako Herri Irratian eta ARKOn ere ibili izan da kazetari lanetan. Baita EHuren Udako Ikastaroetan ere, prentsa bulegoan. Duela zenbait hilabetetatik, ordea, Biolur-eko eta Ekonekazaritzako koordinatzailea da.

— Nekazaritza Ingenieritza ikasi arren, duela gutxi arte komunikabideetan ikusi zaitugu buru-belarri. Zerk eraman zintuen komunikabideetara?

— Kasualitatez hasi nintzen, baina gero eta gustukoago nuela konturatu nintzen gerora. Komunikabideen arloak liluratu egin ninduen, nekazaritza arloa alde batera utzi nuen. Hamar bat urte igarodut hainbat komunikabidetan lanean.

— Orain, berriz, Biolur-en diharduzu. Zergatik eman duzu pauso hori?

— Biolur 1993an sortuzen eta ni hasieratik naiz hango bazkide. Nekazaritza biologikoaren kezka, beraz, betidanik izan dut, eta elkartean ere hasieratik ibili naiz. Aurtent koordinazio lana eramatea eskaini didate eta onartu egin dut.


— Zer da Biolur? Eta zer Ekonekazaritza?

— Gipuzkoako Nekazaritza Ekologikoaren Aldeko Elkartea da, Bergaran duena bere egoitza. Nekazariak, teknikoak eta nekazaritza ekologikoaren alde lan egin nahi dutenak elkartzen dituen erakundea da. Bizkaian, Araban,

Nafarroan eta Iparraldean ere badaude nekazaritza ekologikoaren aldeko beste elkarte batzuk. Euskal Autonomia Erkidegokoak beste federazio batean elkartuta gaude, Ekonekazaritzan alegia, eta horren koordinazio lana nik egin dut.

— Zer da nekazaritza ekologikoa?

— Normalean nekazaritza ekologikoa pozoinik eta ongari kimikorik erabiltzen ez duen nekazaritzarekin lotzen da, eta egia da. Kutsatzen ez duen nekazaritzarekin, eta hori ere egia da. Hondakin toxikorik gabeko elikagaiak lortzen dituen nekazaritzarekin, eta hori ere egia da. Baina hori baino gehiago ere bada. Hots, filosofia bat ere bada. Gure lurra eta natura errespetatzeko borondatea, animalia, landare eta pertsonak bizitzan parte hartzen duten lekua errespetatzeko nahia. Beraz, zeri-kusi handia du biziarekin, kalitatearekin eta osasunarekin; eta baita errespetuarekin ere.



“Nekazaritza ekologikoaren oinarrian gure lurra eta natura errespetatzeko borondatea dago”

...n diot nekazaritza ekologikoari”

— Zein etorkizun ikusten diozu nekazaritza ekologikoari?

— Geroz eta etorkizun hobe ikusten diot. Jendea kontzientziatzen ari da gai honi buruz. Merkatua ere zabaltzen ari da. Xoxetan edo ehunekotan jarrita, sekula ez gara gehiengo izango, baina hori azken finean fakturazioan neurtzen da. Guk, ordea, kalitatearen aldeko apostua egiten dugu, eta badakigu produktu horiek gutxi direla.

— Ohiko nekazaritzarekin alderatuta, zein alde ditu nekazaritza ekologikoak?

— Ia ez du kutsatzen, ez du hondakin toxikorik sortzen ez lurraztat eta ez produktuan bertan eta berezko produktuak lortzen ditu. Desabantailarik, aldiz, nik ez diot aurkitzen. Beharbada ikerkuntzari dagokionez, besteak baino atzerago gaudela. Izan ere, ikerkuntzarako diruak nekazaritza intentsibora biderratu dira.

— Zein da baseritarrek nekazaritza ekologikoari eman dioten erantzuna?

— Denetik dago. Batzuk konforme daude eta beste batzuk ez. Baina, gure base-

rritar bazkide kopurua gora doa etengabe, eta hori zerbaitegatik izango da.

— Nekazaritza ekologikoaren bidez lortutako produktuen azokak ere egin dituzue. Zein helbururekin?

— Hiru helburu izaten dira. Batetik, normalean produktu horien eskaera eskaintza baino askoz handiagoa da. Orduan jende askok ikusmina izaten du produktu hauekiko, baina ez daki nora jo hauek lortzeko. Horren aurrean, urtean zehar hainbat lekutara joaten gara eta azokak antolatzen diren herrietako

jendeak azokara joan eta produktuak eta hauen ekoizleak ezagutzeko, dudak galdetzeko... aukera izaten du.

— Zein erronka nagusi ditu Biolur-ek?

— Gabiltzan bidetik segituko dugu. Alde batetik, gure mezua zabalduz. Produktu ekologikoen aukera ere zabaldu nahi dugu, produktuak kontsumitzaileen eskura jarritz.

— Komunikabideetan ala nekazaritza arloko gaietan gusturago?

— Bietan. Ni nahiko polifazetikoa naiz. ■

Kafe hauek denak...
FREXKOAK
XIGORTU BERRIAK
XUABEAK.....dira

Egunero herriz-herriz banatzen diren kafeak. Zeuk aukeratu.

BAQUE KAFE
XUABEA

Ulma-Cegasa taldeko txirrindularia

IVAN VELASCO

"Itzulietan aritzea gustatuko litzaidake"

— **Noizko taldearen aurkezpena?**

— Oraindik kontratuak sinatu baino ez ditugu egin. Azaroan aurrendenboraldia hasiko dugu abendura arte eta urtarrian hasiko gara bizikletarekin. Beraz, oraindik astia dago.

— **Ordua arte ez zara bizikletan arituko?**

— Entrenamenduetan, ez. Orain gimnasioan, mendian eta lasterka arituko gara. Irristaketa egitera ere joango gara.

— **Ezagutzen dituzu taldekideak?**

— Ez naiz aritu eurekin lasterketetan, baina eurei buruz berba egiten entzun dut.

— **Zenbat denborarako kontratua duzu?**


— Taldea printzipioz bi urterako da, baina guri urtebeterako kontratua egin digute. Gero ondo gabiltzala ikusten badute, beste urtebete egiteko aukera izango dugu seguraski.

— **Denak berriak izanik, nola ikusten duzu denboraldia?**

— Igarri egingo da denok lehen urtekoak garela eta piska bat motel ibiliko gara.

— **Zein lasterketan parte hartzea gustatuko litzazuke?**

— Itzulietan aritzea gustatuko litzaidake. Eta Euskal Herriatik ateratzea ere gustatuko litzaidake. Inoiz ez naiz hemendik kanpo bizikletan ibili eta gustatuko litzaidake zer nolako giroa dagoen ikustea eta baita bizikletan nola aritzen diren ezagutzea ere.



FUTBOLA Puntuak gehitzen



Preferente mailako Mondra taldeak Real Union taldearen aurka jokatuzuen joan den asteburuan. 0 eta 1 irabazi zuen. Honi esker, Juanina Garairen mutilek gora egin dute sailkapenean. Mondragoetarrek zazpi puntu dituzte dagoeneko. Dena den, aste honetako partida erabakigarria izan daiteke, taldearen egoera ona baieztatzeko. Derbia jokatuko da Atxabalpen. Zuri-moreak UDA taldearen bisita izango dute. Derbia Klubaren egun erdia egiteko aitzakia izango da etxekoentzat. Hori dela eta, sarrerek prezio berezia izango dute: bazkideek 500 pta., ez-bazkideek 800 pta. eta erretiratu eta gaztetxoek 300 pta. ordaindu beharko dituzte.

Ohorezko liga jokatzen ari diren gazte mailakoek ere garaipena eskuratu zuten asteburuan. Saikapeneko liderra den Urola taldeari 3 eta 1 egin zieten Atxabalpen jokatutako partidari. Aste honetan Aldapetarrak taldearen aurka arituko dira.

SASKIBALOIA Ondo, oso ondo




Arrasate Saskibaloia taldeak beste garaipen bat eskuratu zuen joan den asteburuan. Mondragoetarrek Ceramicas Apaolaza talde gasteiztarra gainditu zuten, 56 eta 61. Gorostidi izan zen markatzaile nagusia, 17 puntuekin. Aste honetan Iruñeko Ursulinas taldearen aurka arituko dira mondragoetarrek. Norgehiagoka Iturripen izango da, arratsaldeko 19:15etan.

Maila baxuagoetan ez

zuten zorte bera izan. Juniorrek 79 eta 72 galdu zuten Aelvasa taldearen aurka eta haur mailako taldeak ere 67 eta 59 galdu zuten Goierriren aurka. Aste honetan junior taldeak Etxadi-Arguisan taldea izango du aurrez aurre.

ESKUBALOIA Arrasatearrak noraezean



Arrasate Eskubaloia taldeak iparra aurkitu gabe segitzen du. Larunbatean Oreretan aritu ziren Ereintza taldearen aurka, baina ezin izan zuten garaipenik lortu. Lehen zatian bi taldeak nahiko parekatuta ibili ziren, baina azkenean 25 eta 11 amaitu zen partida. Aste honetan etxean arituko dira. Aurrean Gaskon-Portugalete taldea izango dute. Partida larunbatean izango da, 17:00etan.

Gazteagoek, ordea, emaitza hobekak izan zituzten. Gazte mailakoak Bergararen aurka aritu ziren eta 17 eta 22 irabazi zieten. Haur mailakoek 11 eta 17 irabazi zuten Legazpin. Aste honetan gazte mailakoak Arrateren bisita izango dute igandean, 12:00etan. Haur mailakoak, Bergararen aurka arituko dira Iturripen, igandean 10:30etan.

ERRUGBIA Liga hasiera



Asteburu honetan ekingo diote senior taldeko errugbilariak denboraldiari. Larunbatean Arratiko Txekoren aurka izango dute lehen jardunaldiko norgehiagoka. Nahiko talde berria da Igorrekoa. Partida Igorren jokatuko da 16:30etan.



Montura
+
PREVISION²
Lente
progresiboak

19.900 pta*

Irakur ezazu geure Eskaintza
arreta handiz
edo garesti ordainduko duzu!!

* Edozein graduazio. 1998ko azaroaren 30era arteko eskaintza.

**Kalitatea
saltzen
dugu.**

INSTITUTO OPTICO
Erdiko kale, 22
20500 ARRASATE
943 79 71 68

INSTITUTO OPTICO
Hiper Eroski
20500 ARRASATE
943 79 78 26

OPTICA GARAGORRI
Iturriotz, 29
20500 ARRASATE
943 79 16 98

INSTITUTO OPTICO
Andra Mari, 8
48200 DURANGO
94 6202986

INSTITUTO OPTICO
Grupo San Ignacio, 3
48200 DURANGO
94 6818492

INSTITUTO OPTICO
Erdiko kale, 21
20830 MUTRIKU
943 60 31 54

Zeramika erakusketa
eta salmenta



Urizarri Etorbidea, 22-B Tel.: 943 79 81 80 • Faxa: 943 79 81 80 • ARRASATE

Saioa Gimnasioko karatekak txapelketara



Jorge Sanchez
Haur maila
Gerriko marroia



Erik Martin
Juniorra
Gerriko beltza



Maikel Talledo
Haur maila
Gerriko marroia

Larunbatean Euskal Herriko Kopa jokatuko dute Saioa Gimnasioko hiru karatekek. Basaurin jokatuko den txapelketan izango dira, Gipuzkoako ordezkari izatekin.

Bestalde urriaren 25ean ere txapelketa izango dute karateka mondragoetarrek. Promesentzako txapelketa izango da eta gerriko marroia duten karaketak arituko dira.



I. Aranburuzabala
Juniorra
Gerriko marroia



J. Manuel Petite
Seniorra
Gerriko Beltza



Iker Zabarte
Juniorra
Gerriko marroia



Sandra Alvarez
Haur maila
Gerriko urdina



Mati Mellado
Seniorra
Gerriko urdina



A. Aranburuzabala
Juniorra
Gerriko urdina



Zigor Jimenez
Seniorra
Gerriko orlegia



Mikel Zabarte
Gazte maila
Gerriko urdina

Orain, metalurgian ere emakumeak



Beste lan irtenbide bat: emakumeak orain buzoarekin

Emakumeei zuzendutako soldadura ikastaroa antolatu da

Jantzi buzoa zuk ere

Soldadura teknikak ikasi eta enpreetan praktikatzeko atea zabalik ditzue.

Ikastaroaren iraupena:

Azaroaren 2tik
martxoaren 31ra arte. (400 ordu)

Ordutegia:

14:00 -18:00 (astelehen, astearte, asteazken, ostegun, ostirala)

Plaza mugatuak (15)

Izena emateko azken egunak.

Antolatzailea:
Enplegu Zerbitzua

Laguntzailea:
Emakume Saila



ARRASATEKO UDALA

Emakume Saila ■
Enplegu Zerbitzua ■

JABIER MERCADER, ZERAMIKAGILEA

“Atzerrian jendeak sentiberatasun handiagoa du zeramikarekiko”

Jabier Merkader 34 urteko gasteiztarrek zeramika lantzen dihardu azken hamahiru urteotan. Gaur egun Gatzagan bizi da, eta hantxe egiten ditu bere zeramika lanak ere. Urria bukatu bitartean, Arrasateko Mondragon Hotelean egongo dira “Ikonoak” izenez bataiatu dituen bere lanak.

— Erakusketa honek “Ikonoak” izena du. Zergatik aukeratu duzu izen hori?

— Ikonoak Ekialdeko erlijioetan egurraren gainean egindako erlijiozko pieza batzuk dira, gurtzekoak. Nire hormirudi guztiak ere egurrezko xaflei loturik daude, eta hortik datorkie ikono izena.

— Zein da lan hauen bidez jendeari igorri nahi diozun mezua?

— Jendeak ikono bat zer den jakitea nahi izan dut erakusketa ikusi baino lehen, eta erakusketa ikusi ondoren hormirudien sinbologiaren jabetzea.

— Noiztik eta nola zeramikarako zaletasuna?

— Nik beste edonork bezala langintza arrunt bat nuen. Zeramika ikastaro batean hasi eta handik sei hilabetera, ordea, lana uztea erabaki nuen eta Gironako Abisbal zeramika eskolan egin nituen zeramikako lehen ikasketak. Ondoren, trebatze ikastaroak egin nituen.

— Zeramikan diharduzu buru-belarri?

— Bai. Orain Euskal Herrian zehar ibilbide bat egiten ari naiz. Datorren urtean, berriz, Frantzia, Alemania eta Italiara joango naiz. Bestalde, Renon ere munduko zenbait zeramikagilek elkartu behar dugu; denon lanekin



erakusketa bat antolatu eta gure jatorrizko herrietan erakutsiko dugu erakusketa hori.

— Zenbat erakusketa egin dituzu?

— Dexente. Lehena Frantzia egin nuen, 1989. urtean. Hor atzerriko lehen sailkatuaren saria eman zidaten. Hori izan da inoiz ilusio handiena egin didan saria, eta orduan erabaki nuen zeramikan buru-belarri sartzea.

— Jendeak zein jarrera du Euskal Herrian zeramikarekiko?

— Atzerrian jendeak askoz ere sentsiberatasun handiagoa du zeramikarekiko. Finlandian, Suedian, Irlandan... alde guztietan daude horrelako elkarteak, Euskal Herrian izan ezik. Hemen zeramika lantzea artisautzarekin lotzen da, eta zenbait kasutan artisautza feria batean parte hartzeko norberari gustatzen zaiona alde batera utzi beharra dago.

— Zein izan daiteke horren arrazoiak?

— Ezagutzarik eza. Jendeak ez badu zeramikarik ikusten, ez daki zeramika badagoenik ere, eta ondorioz, ez du baloraziorik egiten.

“Euskal Herrian zeramika lantzea artisautzarekin lotzen da”

aste gazte

■ LANA

• Eibarreko Udalerako, erdi mailako teknikaria behar da. Epea: urriak 22.

• Bilboko Udalak, 43 administrari, 29 administrari laguntzaile eta administrazio orokorreko 2 teknikariren plazak hornitu nahi ditu. Epea: urriak 22.

• EHU-UPVrako, irakasle- en kidegorako plazak betetzeko deialdia. Epea: EAOan argitaratu zain.

■ LEHIAKETAK

• “Bilbao Hiria” pop-rock lehiaketa. Euskal Herria nahiz estatu espainiarreko taldeek parte har dezakete, bi modalitateetan: pop-rock edo rock gogorra-heavya. Lau kantaz osaturiko bilduma, abenduaren 31 baino lehen bidali behar da.

■ IKASTAROKAK

• “Troconiz Santacoloma” Fundazioak, urteroko ikastaro eskaintza egin du: mintzaira eta idazkeraren nahasteak aurrezaintzen, abestia haurren munduan, musikagramak, haurrak eta helduak literaturaren aurrean, irudiaren mintzairatik gertu eta joga eskolan praktikatzeko hasierako ikastaroa.

• Urtxintxa aisialdiko hezitzaileen eskolak, hainbat ikastaro antolatu du: gazte lekuak, euskal jolasak, heziketa berezia, drogomenpekotasunen prebentzioa...

• Hezkide Eskolak ere badu ikastarorik: begiralea, astialdiko zuzendaria, familia barruan ekintza hezitzailearen oinarriko heziketa, Alzheimer gaixotasunaren ikastaroa...

Berri gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Etxe bat salgai Eltziegion (Arabako Errioxan). Lehenengo solairuak bi etxebizitza ditu, bi behe handi. Tel.: 941 60 61 05.

2. Erosi

• Etxebizitza erosiko nuke. Tel.: 943 71 22 61 (egunez) edo 943 79 70 73 (gauetz). Sabino.

3. Errentan emateko

• Berriztutako etxebizitza alokagai, Arrasate erdian. Tel.: 990 26 72 63.

• Erdi aldean bakarrik bizi den emakume batek bi oheko gela bat alokatuko luke. Interesatuak deitu telefono hauetara: 943 79 213 0 (goizez) edo 943 79 82 43 (arratsaldez). Mari.

4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza alokatuko nuke Arrasaten edo inguruan. Tel.: 910 36 06 29. Deitu gauetz.

• Etxebizitza alokatuko genuke, Arrasaten. Tel.: 943 45 88 97.

• Etxebizitza alokatuko nuke. Bero-gailua beharrezkoa da, nahiz eta jantzi gabe egon. Tel.: 943 71 51 67. (20:00etatik aurrera, Marta).

• Emakumezko ikasle italiarrak etxebizitza alokatuko luke Arrasaten edo Oñatin. Sukaldearekin eta jantzia. Dei egin Soziologia Fakultatera (Tel.: 943 78 30 64/943 78 34 00.) eta esan harremanetan ipintzeko Carmen Paoluccirekin.

• Etxebizitza alokatuko genuke Arrasaten edo Aretxabaletan. Tel.: 943 79 20 61 (Ibon).

5. Etxeak osatzeko

• Leioan lagun bat behar da etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 79 30 61.

• Neska bat behar da Donostian etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 79 83 22 (Maite).

• Aramaion pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. Utzi mezua: 907 23 43 54.

• Laguna behar dut Donostian (Amaran) etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 71 50 87/943 71 41 49.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 77 05 65

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

• Lagun bat behar da etxebizitza osatzeko, Bilbon. Tel.: 943 79 56 86.

• Ikasle batek gela bat hartuko luke etxebizitza batean. Hobe euskaldunekin. Tel.: 943 55 07 42. Kepa.

• Pertsona bat behar da Leioako Unibertsitatetik gertu dagoen etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 79 51 68 (Ainhoa)/ 943 79 28 11 (Saioa). 14.000 pta hileko.

• Gela bat behar dut ikaslez osaturiko etxe batean. Tel.: 943 60 41 80/943 60 34 95. Idoia.

• Mutil bat edo bi behar ditugu Donostian, etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 79 39 62.

• Ikasle batzuek etxebizitza alokatu nahiko genuke Arrasaten. Tel.: 943 79 79 38 (Danel).

• Gela bat alokatuko nuke Arrasaten edo pertsona bat falta zaien etxebizitza osatuko nuke. Tel.: 943 31 30 56. Gaueko 20:00etatik aurrera. Garikoitz

• Irakasle batek logela bat beharko luke, osatzeko dagoen etxebizitza batean. Tel.: 943 79 07 84.

• Bilbon pertsona baten bila gabiltza ikasle etxebizitza bat osatzeko. Tel.: 943 79 28 05. (Iker).

• Pertsona bat behar dugu etxebizitza osatzeko. Hiru logela hiru pertsonarentzat, Arrasateko erdialdean. Tel.: 930 71 29 31. Arratsaldez.

• Gela bat alokatu nahiko nuke Arrasaten edo inguruan. Tel.: 943 77 01 21. Mitxel. Gauetz deitu.

• Logela bat behar dut ikaslez osaturiko etxebizitzan. Tel.: 94 683 00 86.

• Etxebizitza bat edo logela bat alokairuan hartuko nuke. Tel.: 943 18 03 78 (asteburuetan) eta 943 76 55 67 (asteazken zehar).

GARAJEAK

7. Saldu

• Garajea salgai Altamiran. Tel.: 943 79 36 79.

• Garaje handia prezio txikian alokagai Udala plazan, Usetxe inguruan. Tel.: 943 79 66 38.

• Garaje itxia salgai. 14m²koa da eta Zigorrola aldean dago. Dei egin 943 44 54 22 telefonora.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100m²ko bi solairuko tokia salgai. Tel.: 943 79 07 24.

• Tokia salgai Erguin kalean. Edozein negozio motatarako prestaturiko dago. Tel.: 909 40 93 66

15. Errentan hartzeko

• Neska talde batek toki txiki bat alokatuko luke. 943 77 09 91 (Esti).

LANA

17. Eskaintzak

• Etxeak garbituko nituzke, edo pertsona nagusiak zaindu. Tel.: 943 79 11 46.

• Neska prest edozein lanetan aritzeko. Tel.: 943 71 55 64. Vanessa.

• Emakume euskalduna prest etxeko lanak egin eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 943 79 07 73.

• Emakume arduratsua prest umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 54 48.

• Emakumea prest orduka atariak garbitzeko. Tel.: 943 79 78 36. M^a Carmen.

• Neska arduratsua prest umeak zaintzeko edo nagusiei konpainia egiteko. Interesatuak dei egin 943 71 53 74 telefonora, 20:00etatik aurrera.

• Emakumea prest etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 77 06 44.

• Neska prest umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 96 10 (Mari).

18. Eskaerak

• Pertsona bat behar dut, bi astetik behin, goizez umeekin egoteko, Aretxabaletan. Tel.: 943 79 79 29.

• Jatetxerako zerbitzaria behar da. Neska, euskalduna eta esperientziaduna. Tel.: 943 79 24 58.

• Emakume bat behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko, Uribe auzoan. Tel.: 943 77 03 05

• Modeloak behar dira lle apaindegirako, urriaren bigarren hamabos-

taldirako. Tel.: 943 77 09 44.

• Zerbitzaria behar da asteburueta-rako. Tel.: 945 44 50 86.

• Pertsona bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 56 30.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Eskola partikularrak ematen ditut. Euskaraz zein gaztelaniaz. Tel.: 943 79 36 93. Patricia.

• Eskola partikularrak ematen ditut. Euskaraz zein gaztelaniaz. Tel.: 943 79 31 48. Maider.

• Psikologoa naiz eta laguntza eskola emateko gertu nago. Tel.: 943 79 86 28.

21. Eskaerak

• Kontabilitateko eskola partikularrak hartuko nituzke larunbatetan. Deitu asteburuetan. Tel.: 943 7930 39.

• Eskolak hartuko nituzke gai haue-tan: programazioa, sistema eragile-

ak eta sareak. Tel.: 945 44 51 66.

• Ekonomia alorreko matematika irakasle bat behar dut, Batxilergo LOG-SE 2. mailan. Tel.: 943 79 39 62.

MOTORRA

23. Saldu

• BMW 318 i5.16v Coupe. 90 urtekoa. 140 cv. Zuria. VI-L matrikuladuna. Egoera onean. 120.000km. Prezioa: 850.000 pta. Tel.: 945 28 93 07. Alberto.

• Peugeot 205 XR 3 ateduna salgai. Gris iluna metaldun kolorekoa. Egoera onean. 225.000 pta. Tel.: 943 79 02 28.

• Opel Corsa 1.2 Swing salgai. Beltza kolorekoa. SS - V. Tel.: 943 64 39 14.

• Kawasaki GPZ 400 F2 salgai. 94 urtekoa. Berria bezalako. maleta bat eta bi buru babesarekin. Tel.: 943 79 63 79.

DENETARIK

26. Saldu

• Komuneko altzari eta osagarriak salgai. Merke. Tel.: 943 79 19 99. Mariluz.

• Flex literak salgai 35.000 pta.tan. Intxaur egurrezko telefonoa salgai 10.000pta.tan. Tel.: 943 79 57 64.

• Marrazteko mahaia salgai. Berri-berria, prezio erdian. Tel.: 943 79 33 17 (21:00etatik aurrera).

• Sigma marka duen josteko maki-na industrialia salgai. Tel.: 943 79 42 70.

• Autorako irrati-kaseta salgai. MX Onda 25wx4 - Dolby - MS Loudness - BSM - MTL - Prezio interesgarria. Tel.: 943 79 60 81.

• Hamar Kardon V1x625 300 w potentziakoa. Musika talde batentzako aproposa. 100.000 pta., negoziagarriak. Tel.: 945 22 34 35 (Julian).

• Zimmerman pianoa salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 48 10.

• Trikitixa salgai. Tel.: 943 77 04 50.

29. Eman

• Ehizako txakurkumeak (setter) ematen ditut. Tel.: 943 79 20 24.

31. Galdu

• Maritxu Kajoi gauean graduatutako betaurrekoak agertu ziren Irati tabernan. Jabea handik pasatu, mesedez.

33. Bestelakoak

• Osatzeko tratamendu naturalak ematen dira. Reiki sistema. Mota guztietako gaixotasunak. Tel.: 943 79 45 74

• Lau gazte gara, gure autojostiorako nekazaritza eta eskulangintza proiektuak ditugunak. Beraz, gustura hartuko genuke berrizteko dagoen baserri zahar bat. Tel.: 943 79 48 0. Itziar.

• Perkusio lantegia. Hastapen eta sakontze mailak. Hainbat eritmo: afrikarrak, arabiarrak, hegoamerikarrak, rock&rolla... Astelehenetan, arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara, Gazteluondoko ikastolan. Izen emateko eta berri gehiagorako, Gazte Bulegora jo. Tel.: 943 77 00 65.

ARRASATE PRESSEko harpidetza berriztu nahi duzula?



Arrasatetik kanpo dauden lagun edo senitartekoei harpidetza oparitu nahi diezula?

ORAINXE DUZU GARAIA!

Arrasatetik kanpo dauden arrasatearrek hemengo berriak eta jendea gertuago izan ditzaten Gure kontu korrontean **3.000 pta.**ko diru sarrera egin dezakezu kontu korronte zenbaki hauetako batean:

- KUTXA 001.026694.8 (Portaloiko bulegoa)
- EUSKADIKO KUTXA 001.002.7600 (Iturriotz kaleko bulegoa)

Ingresoak egitean garbi adierazi, mesedez, aldizkaria zeinen izenean bidali behar den.

ARRASATE PRESS atzerrian bizi den norbaiti bidali nahi badiozu, zatoz gure bulegoetara eta jakinaraziko dizugu.

Tel.: 943 79 02 26 Helbidea: Otalora Lizentziatua, 31 • ARRASATE



Besaide ere bisitatuko da Mugarriz mugarriren egitarauan.

Mugarriz mugarri

AEDko Kultura Sailak eta Besaide Mendizale Elkarteak "Mugarriz mugarri... Arrasate ezagutzen" egitasmoa antolatu dute. Aipatu egitasmoa ibilaldi sorta bat izango da funtsean. Baina, ez da ohiko mendi buelta izango. Osteraldi hauetan mugarriren bideei jarraituko zaie, eta ondorioz, Arrasate eta inguruko mendi bideetako ondare historiko, toponimiko eta paisajistikoa ezagutzeko ere aukera paregabea eskainiko dute irteera hauek. Era berean, lekuan lekuko basobide, iturri, erreka eta baserrien berri ere gertutik ezagutu ahal izango da.

Izenak berak esaten duen eran, helburua mugarrietatik zehar ibilbidea jarraitzea da. Zenbait kasutan, ordea, hori ezinezko bihurtzen da hainbat arrazoiengatik: biderik ez dagoelako, bidea arriskutsua delako... Horregatik, inguru-

ko herrietako lurretan sartze-
ra behartuta egotea suertatu-
ko da: Aramaio, Elorrio, Ber-
gara eta Aretxabaletako lurra-
k ere zapalduko dituzte, beraz.

Kirol eta natura arloak bateratzen dituen ekimen honek adin guztietako naturazaleak eta mendira joateko ohi-turarik ez dutenak ere bildu nahi ditu. Hori dela eta, hiru igandez luzatuko da.

Irteerak honela antolatu dituzte: urriaren 25ean Kataide, Bakube, Andra Mari Zuri, Bedoña eta Mugarritik egingo dute beren ibilbidea. Hamabost egun barru, berriz, lehen igandean utzitako leku berean helduko diote ibilbideari. Ondoren Muru, Gesalibar eta Besaidetik igaro ostean, Garagartzan bukatuko da egun horretako mendi buelta. Azken irteera azaroaren 25ean izango da. Udalatik ekingo dute ibilaldia, eta Besaide, Udalatz,

Kanpazar, Epele eta Kataide-
ko mugarriak ikusiko dituzte
egun horretan.

Itxaro Artola AEDko teknikariari espero duten harre-rari buruz galdetzean, ez da aurreikuspenik egitera ausartu: "Lehenengo urtea izanda, ez dakigu zein harrera izango duen. Gainera, egunak ere ez dira aipatzen. Datorren urterako uztea ere pasatu zitzaigun burutik, baina azkenean egitea erabaki dugu. Dena den, jendea animatuko dela espero dugu, ekimen polita baita".

Ekimen hau aurrera eramateko herria dexente ongiez-
agutzen duten hainbat pertsona-
ren laguntza ere jaso dute: *Txi-
pi* Ormaetxea, Karmelo Uriba-
rren eta Gotzon Arzelus. Haue-
tako bakoitzak beraien ekarpe-
nak egingo dituzte kultura arlo-
ari dagokionez. Bai leku ize-
nen jatorria eta zergatia dela,
baserrien izenen zergatia...

Dena den, Itxaro Artolak gaineratu duenez, ez dute ekimen hau ekintza puntual batean gelditu dadin nahi. Urtero ez bada ere, bi urtean behin errepikatu nahi dute dagoeneko abian jarri duten egitasmo hau. Izan ere, Itxarok dioskun eran "belaunaldi berriak datoz atzetik, eta hauei ere herri basobideak eta txoko izkutuak ikasteko aukera eman behar zaie".

Ibilbide hauetan autobus zerbitzua ere eskura izango du nahi duenak. Autobusek Garibaitik irtengo dute, eta zerbitzu honek irteera gune-etara hurbildu eta gero eguerdian etxera ekarriko ditu hori egin nahi dutenak. Zerbitzu hau, gainera, 300 pezetaren truke izango du eskura nahi duenak. Horretarako izenematea AEDn egin ahal izango da, irteera eguneko aurreko lanegunetan.

Hauteskundeak, asteko protagonista nagusiak

Datorren urriaren 25ean izango diren Eusko Legebiltzar-erako hauteskundeek aldatetarako eragingo dituzte ATBren programazioan. Izan ere, igandean bertan eta gaueko 22:00etatik aurrera, hauteskundeak buruzko saio bat prestatu dute ATBko kideek: "Hauteskundeak 98".

Mikel Irizarrek aurkeztuko du. Bere alboan Arrasateko alderdi guztietako ordezkari bana izango dira. Beraz, udalean ordezkariak duten alderdi politiko guztien bozeramaileak espero dira. Hala ere, "Hauteskundeak 98" saioa ez da horretara soilik mugatuko, eta botoen kontaketa burutu ahala, Arrasate guztia ezagutaraziko zaizkio.

Mikel Irizarrek aurkeztuko duen programan Euskal Autonomia Erkidegoko estatistikak agertuko dira, baina baita hurbilago herriena ere.

OSTEGUNEAN MAHAINGURUA.

Igandean "Hauteskundeak 98" saio berezia aurkezteaz gain, Mikel Irizarrek lau egun lehe-



Mikel Irizarrek aurkeztuko du "Hauteskundeak 98" saioa.

nago, asteazkenean hain zuzen ere, hauteskundeak buruzko mahai inguru bat gidatuko du. Egun horretan zenbait politiko hurreratuko dira ATBra, gaur egungo egoeraz eztaba-datzeko. Hemen izango ditugu Arrasateko Udaletxean ordezkariak duten alderdi politikoaren bozeramaileak.

Gaueko 21:00etan hasiko den ezbaian, honako politikok hartuko dute parte: EAJko Juan Mari Juaristi, EAKo Jon

Goikoetxea, IUko Antxon Karrera, EHko Xabier Zubizarreta eta PSE-EEko Maite Pagazaortundua. Pentsa daitekeenez, alderdi bakoitzak bere hautes proposamenak agertuko ditu. Horregatik, eztabaida beroa suertatu daiteke.

ENPRESEI BURUZKO PROGRAMA BERRIA.

Aurreko asteetan ATBren programazioan burututako berrikuntzekin jarraituz, datorren

ostegunean (hilaren 22an) "Ekilan" izeneko programa berria estreinatuko da. Arrasate inguruko enpresak mintzagai izango ditu, baina baita ekonomia esparrua orokorrean. Zuzenean eskainiko da eta aurkezle lanetan Herri Irratiko Alberto Gorritiberea arituko da. Saio hau hilean behin eskainiko da. Lehen programaren gaia hauteskundearen ingurukoa izango da, nola ez.

■ ATBren programazioa

ASTELEHENA, 19

13:30 Albiste aurrerapena
13:40 Astebete (errepika)
20:00/20:30/21:00 Berriak
21:30 Mondrasport. Itxaro Zubillagak aurkeztutako kirol saioa.

ASTEARTEA, 20

13:30 Albiste aurrerapena
13:40 Mondrasport (errepika)
20:00/20:30/21:00 Berriak
21:30 Munduari Bueltaka

ASTEAZKENA, 21

13:30 Albiste aurrerapena
13:40 Munduari Bueltaka (errepika)
20:00/20:30 Berriak
21:00 Mahai Inguru: Hauteskundeak 98

OSTEGUNA, 22

13:30 Albiste aurrerapena
13:40 Mahai Inguru: Hauteskundeak 98 (errepika)
20:00/20:30/21:00 Berriak
21:30 Ekilan. Enpresen inguruko programa berria
22:00 Soinuz Blai.

OSTIRALA, 23

13:30 Albiste aurrerapena
13:40 Ekilan (errepika)
20:00/20:30/21:00 Berriak
21:30 Astebete
22:00 Soinuz Blai.

LARUNBATA, 24

13:30 Asteko programarik interesgarrienak.

IGANDEA, 25

22:00 Hauteskundeak 98.




L 926. urtean etorri izan zen hona kanpoko jendea futbole-an aritzera. Maalako futbol zelai zaharrean ateratako argazki honetan, Mondragoeko Cerrajerakoen taldea eta Irungo Real Union taldea agertzen dira. Euren artean erdi ezkutaturik, Arrasateko futbolariak entrenatzen ibili zen Harris jauna daukagu. Britainia Handitik Real Union taldera joan ostean, Mondragon taldera pasatu zen,

Jose de Añibarrok fitxatuta. Mr. Harrisek hilero 5.000 pezeta kobratzen zituen bere lana egiteagatik; dirutza nahikoa garai haietarako!

Zenbakien arabera, hona hemen argazkian agertzen direnak: 1: Jose Arkauz ; 2: Bitoria; 3: Bidaburu; 4: Jaime Mancisidor (Real Union); 5: Tell (Real Union); 6: Armengou ; 7: Francisco Zabala ; 8: Francisco Etxebeste (Real Union); 9: Mr. Harris (entrenatzailea); 10: Abarrategi; 11: Ibañez; 12:

Macario (Real Union); 13: Real Union taldearen ekipaiaren zaindaria; 14: Javier Altuna; 15: Jose Mondragon "Marruco"; 16: Jose Maria Azurza (Real Union); 17: Lucio Ceciaga; 18: Mungia (Real Union); 19: Zarraoa; 20: Madinabeitia "Manuca" ; 21: Juan Garmendia (Real Union); 22: Zabarte; 23: Santiago Urtizberea "El Tanque" (Real Union); 24: Checho Saura (Real Union); 25: Juanito Mendia (Real Union) eta 26: Galdos.

*Argazkia: Diario Vasco
 Berriemalea: Felisa Ibarra*



**MARKO-JARTZEAK
 ALDEDI**

Biteri, 8 • ARRASATE
 Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84



PEUGEOT

Salmenta eta
 zerbitzua

**IBABE
 GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Euskal
Herria^{ren}
garaia^{da}

bozkatu

EHH

Euskal Herritarrok

**Teknologia eskubide bat da,
ez da pribilegioa.**



Uste dugu ez duela zentzurik auto bat diseinatzeak, gutxi batzuen eskura egon behar bada. Horregatik geure erronka izan da teknologia, segurtasun eta erosotasun gorena duen autoa sortzea, baina mundu guztiaren eskura. Opel Astra berria. Teknologia eskubide bat delako, ez pribilegioa.

Serieko ekipamendua: ABS elektronikoa lau gurpiletara, lagunduriko direkzio elektrohraulikoa, korrosioaren kontra 12 urteko bermea duen karrozeria galbanizatua, atzealdeko ardatza efektu direkzionalarekin, garaieran eta sakontasunean egoki daitekeen bolantea, gidatzailearen jarlekua garaieran egoki daitekeena, leihoak igotzeko sistema elektrikoa, itxigailu zentralizatua urrutiko agintearekin, tamaina handiko air bag-a gidatzailearentzat, lapurretaren kontrako geldiarazle elektrikoa, funtzio askotarako pantaila:



Motor hauek daude eskuragarri: 1.6tik 2.0 16v.-ra; turbodieselelan 1.7 eta 2.0 DI 16v. Karrozeriak 3,5 atetan eta Caravan. Bukaera mailak: Club, Comfort, Elegance eta Sportive.

TALLERES OLA

OPEL 
INGENIARITZA ALEMANA ZURE

Olabarrena auzoa, z/g. Tels.: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN

TAKOLO AUTOAK, S.L.

Araba Etorbidea, 3.(escatu pabiloia). Tel.: 943 79 05 86